

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO. 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 419588 PREZIOA: 4 PEZETA

Lan Kide Aurrezkiaren ekintza berri bat EUSKAL GINTZAREN GESTIO OROKORRA Departamendu bat bereziki sortua

Amateurismo, espontaneismo eta gainerako ismoek betidanik markatu izan dute euskal kulturaren konstanterik bakarrenetakoa. Aje kroniko honek baldintzapetu du behin eta berriz euskalgintzaren hazkundera eta abiadura orokorra.

Garai berriak bizi ditugu, ordea. Hil ala biziko denborak. Orain dela ez askorik iraupena aski edota gaitzik onena bazen ere, gaur egun ez du planteamendu horrek balio, ezer guti da behintzat programa konkretu bezala.


Neurri gabeko industrializazioak, inmigrazio ufalak, hauzoko kulturen azkartzeak, komunikabide arrotzen egundoko eraginak eta gaurko gizarteak erakarri dituzten gainerako aldaketek arras murriztu dituzte iraupen soilaren posibilitateak.

Hauk honela, profesionalizazioa, liberalizazioa eta beste honelako zio askoren premia gero eta nabarmenago da hainbat eta hainbat alorretan. Han hemenka, edozein euskal aldizkariren erredakzioan, argitartzeetan, irakasle bileretan, kultur batzorde eta elkarteetan errepikatzen den hotsa dugu: **liberatzeko**. Eta hitzez hitz aipatzen ez bada ere, sumatu egiten da, etxebarneko giroari dariokeen amets liluragarria balitz bezala.

Baina nola liberatze hori posible egin —berez publiko hedatu bat beharrezko duten ekintzetan batipat—, euskaldungoa, bere osotasunean ere, horren mugatua izanik?

Nola hor zehar sakabanaturik dauden bakar-lanak bil, ekintzak talde mailan molda, eta, ondorioz, talde desberdinak programa orokor batez batera?

Azkenik, nola programa guzti hori finantzia, zein medioz edota zein erakunderen ardura eta laguntzapean?



HERRI ESKARIA

Eskatzeko libre dela esan ohi da. Hala ere, bada ezpada, aldeaz aurretik emateko prest bide dagoenari eskatzea errazago izaten da.

Azkenengo urteetan, Lan Kide Aurrezkiak denetarik eskabideak jaso izan ditu. Handik eta hemendik, milaka eskabide —garrantzitsuak, batzuk, huseriak asko eta kupidotz hutsak zenbait— iritsi dira Arrasatera Euskal Herri guztitik zehar.

Eskari hoik nola hala kontutan hartuak izan dira, ahalik eta interesik onenaz, baina beti ere irizti zehatzik gabe, kriteriorik finkatzeko, horretara jenderik propio jarri barik.

DEPARTAMENDU BERRI BAT

Idelak ez dira batpatean erabat

sortzen. Helduz eta osatuz joan ohi dira, birbidiz. Ikuspegi zabal batez lehenik, konkretutaz gero.

Lan Kide Aurrezkiak ohartu da, euskalgintza orokorik eta ikastolak bereziki, departamendu propio batentzat hainako nahiko zeregin ematen dutela, eta are gehiago eman dezaketela baldin aukerako bideak eskaintzen bazaizkie.

Honelatsu, Ikastolen Departamendua delako bat sortu berri da, arlo horretan planteatzen diren edota daitezkeen arazo guztiak aurrera ateratzen saia dadin. Bai, hainbat zerbitzu eskaintzeko orduan, eta baita diruz gainera beste laguntza mota bat prestatzean ere, dela jakinek lan batetan ari den jendea nominan sartuz, dela ekizuzio mailan, etab, etab.

Departamendu hau, sortu berria denez gero, txiki samarra da oraindik.

Xabier Pagaldai da orain arteko elementu fijoarik bakarra, eta Mikel Lasa laster hasietatik, beste koperatiba batetan duen lana amaitu bezain laster.

Dena den, hasiera haseratik, eta osatuz doan neurrian, departamendua honetako lankide guztiak euskalgintzaren gestiotara atxikiak izango dira erabat, guztiz zeregin horretarako liberratuak.

HELBURUAK

Departamendua honen helburuak, edota hobeto esan jomugak —zentzu pragmatiko eta errealistago batez esanez—, lau sail nagusitan banatzen dira, hots, ikastola barneko mugimendua, ikerlanak, ekintza eragileak eta finantziak, laurak bat eta ez beste direlarik, beren osotasunean.

NON ZER

Langilea: Kezkati eta
Itxaropenez

Ugalde 3 gn.

Militantego heldu
baten premian

Odriozola 5 gn.

Kritikaren kritika

Lete 6 gn.

Arte Kronika

Kortadi 7 gn.

1.—IKASTOLA

Lehen sail nagusi honetan, ikastolako eguneroko barne mugimendua landu eta aztertuko da, hau da, gestio zerbitzuak, administrazioa, pedagogia eta testugintza.

a) Gestio Zerbitzuak. Behar hainbat informazio eskaintzeaz gainera, gestiolari bati dagozkiekeen arazo guztien laguntza eman, baimenak lortarazi, aholku lana, norabideak, tokian tokiko jokarak eta ahalmenak, etab. Dagoeneko zenbait ikastola harremanetan hasia da.

b) Administrazioa. Ikastola barruko egitura batzuk moldatu. Elkar tipifikazio bat aztertu. Kontabilitate plangintza bat burutu etab. Esate baterako, zenbait ikastola 1976-77 ikasturakoan plan kontable horretaz baliatuko da.

c) Pedagogia. Hau da behar bada orain arte gutien finkatu den saila, Mikel Lasa beharko du hain zuzen hobeaz jabetu. Bestalde, departamendua honek ez luke gaitzik beherako laboratoriorik lan bat asmatu nahi, behetik gorako hazkunde baten harreman bere laguntza eskaini baizik, eta aldeaz aurretik finkatutako kriterio zabal batzuen arauera bide bat edo beste potentziatu.

d) Testugintza. Lan Kide Aurrezkiaren sail honek ez dio, noski, testugintzari berekaxa ekingo, baina bai, agian, planifikazio orokor bat sortarazi, dosierak, sinopsiak eta gainerako aintzira-prestaketa taxutu, argitarapenak eratzu, zabalkundera azkartzu etab. etab.

2.—IKER-LANAK

Nolabait ikastola mugimendutik aparte, baina funtsean ezin bestez atxikia. Departamendua berezi honek euskaldungoari dagokion hainbat institutioren moldaketa bere gain hartuko du, bai lehenagotik martxan ari direnei jarraitpen emanez, eta bai berriak eraginez ere.

Bilinguismoaren hauziak hainbat problema sortu du gure artean. Problematika hau moduren batez konpondu edota arinduko bada behintzat, beharrezko izango da aurrez azterketa bat, P. L. P. (Plan Largo Plazo) delako bat edo beste burutu, eta hauzia bere kontestu osoan maituz gero aterabide batzuk proposatu.

Horrez gainera, "Siadeco", Ikastolen Federazioa eta Lan Kide Aurrezkiak elkar lanean hasiak dira oraintsu. Istudio orokor baten premia sumatzen da guztion gogotan. Liburu Zuri delako bat egitea nahi lukete, egungo egoera ausartuz, euskal kulturaren dinamika non kokatzen den ikusi, helburu batzuk markatu, eta biderik egokienak hautatu.

Maila honetako istudio bat lehenetik eskatua zion Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batzuek "Siadeco"ri. Lan Kide Aurrezkiak oinarritzeko istudio hori osatzea eta sakontzea nahi lu-

ke, baita finantziatzea ere. Gipuzkoako ikastolentzat ezezik, Euskal Herriko beste zenbait mugimenduren zatetate ere baliagarri izan dadin.

3.—EKINTZA ERAGILEAK

Bestalde, Departamendua honek bere gain hartu nahi lituzke ere, edozein sektoretan premiakotzat jotzen, talde txikiak beren esku eta asmo soltez eratu ezin dituzten hainakoa ekintza interesgarria.

Zenbait ideia erdi buruturik dago iadanik, dela irakasleentzat ikasaldi proposak, dela ikastolentako zuzendarietaz ere ikastaroak, bilinguismo symposium bat etab.

4.—FINANTZIAZIOA

Noski, programa orokor hau ez litzatekeela posible izango baldin atzekaldeki egiazko finantziakotzat bat egiteko modurik ez balego.

Lan Kide Aurrezkiak hainbat muga eta baldintzapean du legearen aldeki, eta bi modutan kokatua du bere finantziakotza arloa. Alde batetik, "Fondo Obra Social" delakoaz, legeak markatutako irabazpideen portzentzia batez lagun ahal dezake. Diru emaitza hau, era guztizko ekintzetan bana daiteke, berorren kriterioaren arauera.

Bestetik, kredituak eskainiz ere baliatzerik ere bada, beti ere sozial interesez. Baina honetaz, Lan Kide Aurrezkiak kooperatiba denez gero, egituraz kooperatiba diren erakundeei bakarrik eskaini ahal diezaieke.

Edozein modutan, legeak eskaintzen dituen posibilitate guztiak nahi lituzke agortu, eta horra, esate baterako, Gipuzkoako Ikastolen Federaziari testutarako herriki eskaini dizekin hamahost milioi, kooperatiba diren ikastolen izenean eskaini ere.

DEIA

Lan Kide Aurrezkiak ikastola guztien zerbitzutan jartzen da, eta Ikastolen Departamenduan berriaren bitartez, Euskal Herri guztian zehar sortuak eta sortzen ari diren taldeen ekintzaren osagarritzat eskaintzen du bere burua, haiek heltzen ez diren mailatera berorrek iristeko aukera duelakoan.

Lanean diharduten taldeei bere laguntza eskaintzen die une herbererontatik, eta lanean ari nahi dutenei lana emango lieke. Laguntza honek berekin dakar materialen prestaketa eta finantziakotza bideak.

Lan Kide Aurrezkiak irizti eta maila zabal batean saiatzeko asmotan hasten da. Inolazko taldekeriarik gabe, Euskal Herriak dagoeneko behar duen konsensoa eta joko bateratua batetan ari diren programak potentziatuko ditu, norma zabal bezala euskal erakunde nagusiak, dela Euskaltzaindiak, dela Ikastolen Elkarte-Batzak, beti ere hainbatzotzat hartuz.

L. A. ARANBERRI

TXARA PELOTARIAREKIN KONTU-KONTARI

Pelotari on askok izan du nolabaiteko azkena

Inazio Altuna Arregi, «Txara», Bergarako Txara baserrian jaio zen 1910garrengo urtarillaren 10ean.

19 urterekin hasi eta 44 urte arte frontoian ibilitako pelotaria dugu Txara. Gerriak biguin, ezker-eskuin onak, begiak argi eta oinak arinak zituen pelotari salatuak genuen Txara. Indarrez urritxo eta eskuz minbera izanarren partidu asko eta onak jokatu zituen bere garaian.

Gaurregun Irunen bizi da, euskaldunen eta euskaltzaleen arazoez kezkatutik.

«Gipuzkoako Pelota Elkartearen» urrezko eztaietan pelotari zahar honi hurbildu gatzalkio, berau aurkitu bait dugu eskueran.

—Pelotarako zaletasuna jaiocetz geroztik izango zenuen, noski.

—Etxeko atarian ibili ohi nintzen asko. Gela eta ate guztiak puskatzen nituen. Sei urte bete nituenean eskolara joan behar nuela esan zidaten gurasoek. «Nik eskolara joan behar baldin badut pelota berria erosi beharko didazue», erantzun nien. Arteen ez nintzen sekulan baserri-tik atera.

—Piper asko egin ahal zenuen eskolan?

—Ikasteko gogo gutxi nuen. Orain bai badut irakurtzeko eta gauzak jakiteko gogoia. Hasi eta buka irakurtzen dut Z. Argia. Baina orduan beti pelota nuen gogoan. Eskolan sartu aurretik,

te ihardun behar izaten nuen. Halere igande goizean beti pelotan lehortzeraino.

—Profesional bezala noiz hasi zinen pelotan?

—Anaia soldaduskatik etorri zenean. 19 urte nituen. Jende asko egon ohi zen igandetan guri begira. Hauzoko jauntxo batek lagundu zidan. Murua II - Txara eta Etxaniz II - Txikito Durango izan zen jokatu nuen lehen partidua. Irabazi egin genuen gainera. Neri ez zitzaidan pelotari izan behar nuenik burua ere. Bergaran ez zen pelotari haundirik. Bi metroko gizonak ziren orduan pelotariak. Gu, berriz, txikiak ginen. Beste munduko gizonak zirela iruditzen zitzaiz-



Txara orain

Atanok irabazi zuen. Ondoren hiru jokatu zituzten buruz buru eta Atanok irabazi zituen hiru partiduak. Atano geratu zen txapelidun. Kirru eta Etxabek jokatu nahi izan zioten Atanori. Baina, beroni ere Mondragonesak eskuinez bakarrik jokatu ziola aurrena, eta txapela kendu nahi zion guztiak halaxe jokatu beharko ziola berari, erantzuten zien. Ez Kirru eta ez Etxa auzartzen ziren horretara. Buruz buru jokatu nahi zioten hasera haseratik. Sake librean jokatzeko gainera orduko txapelketa. Sake libreaz baliatzen zekien gutxi zen. Felipe de Getaria eta Atano III ziren horretan onak.

—Noiz jokatu zenuen azkeneko partidua?

—44 urtekin jokatu nuen azkeneko partidua. Gallestegiri jokatu genien Arbizu III eta blok. Arteen jokatzeko moduan nintzen, baina ez zegoen hala bizitzetik. Ez genuen ez segururik ez ezer. 35 duro jasotzen genien partiduko. Ibiliko gastuak gure gain. Bi egun behar ziren Gastetiztik joan-etorria egiten. Montepio bat sortu genuen baina bertan behera geratu zen. Ez zen irabazten. Pelotari on asko ibili da azkeneko frontoian farregarri, zerbait irabaztearren. Irunen denda zahar bat erosi behar izan nuen biziko banhitz. Amaika azarrika egin dut bizimodu atertzen.

—Gaurko pelotariez zer iritzi duzu?

—Bizkaia eta Gipuzkoa izan dira pelotaren harrobi. Gaur, berriz, Nafarroa eta Errioxan dira pelotariak. Baina beste molde batekoak dira. Lehen bait lehen tontoa egitera abiatzen dira, kale ala bale. Guk tantoa preparamu egiten genuen. Kontrarioa menderatutakoan jotzen genuen tontoa egitera. Berasaluz IV da molde oneko pelotaria, baina buru gutxi du.



—Txapelketan parte hartu ahal zenuen inoiz?

—Federazioak lehen aldiz antolatatu zuen txapelketako aurreneko partidua neuk jokatu nuela iste dut. Bergaran zen. Frontoia lepezurera bete zen. Zarauzko Lazkanoren kontra jokatu nuen. 10 tantoz aurretik joan banintzen ere haseran, galdu egin nuen azkenean.

—1925ean sortu zen Federazioa.

—Bai, baina, haserako urteetan ez zuen txapelketarik antolatatu. Enpresek antolatzen zituzten partiduak. Mondragonesaren gure garaiko txapeliduna. Honek kendu zion «Zapaterito»-ri txapela. Mondragonesari irabaziko zionik inor ez zen. Orduan ez zen orain bezalako txapelketarik antolatzen. Txapelidunari irabazteko ustetan zen pelotariak erroka jotzen zion txapelidunari. Atano III ausartu zen Mondragonesari jokatzeko. Buruz buru jokatzeko ez zion onartu. Eskubiz bakarrik jokatu ziola aurrena, eta irabazten bazion buruz buru, erantzun zion. Aurrenekoa, berraz, eskuinez bakarrik jokatu zion Mondragonesak Atanori.

Lehen txiki txikitandik hasten zen mutikoa pelotan. Edozein txokotan jokatzeko zen. Gaur ez. Pelotari onak nahi baldin baditugu, erakusleak behar dituzte gaurko pelotari gazteak, maiu onak behar dituzte aldamenean.


—oOo—

Beste kontu asko ere esan digu Txarak, baina inor ez mintzarren edo ez argitaratzeko agindu digu.

Pelotariaren bizitza gogorra da. Etorkizun koxkorreko kirola izan da. Bizibide haundirik gabeko geratu da zenbait. Omenaldi koskor bat ere ez zaio egin askori.

Pelotaren ingurumari arazoak zuzentzeko izan dadila Federazioaren urrezko eztaien ospakizun hau.

MUTIOZABAL



errekreoko garaian, eskola bukatutakoan, astia nuen tarte gutxietan beti pelotan edo jolasen ibili ohi nintzen. Oso kirol zalea izan naiz. Amaika ezpartina eta abarketa puskatu nuen. Amaika errita eta sesio jarri ere bai etxean. Jipoi ederak hartu naiz berandutik etxeratzen nintzelako. Baserrian lan asko zen eta eskolatik laguntzera azkar etortzea nahi gurasoek. Agudo etxeratzen iriten nintzen, baina ezin. Piper bat baino gehiago ere egin nuen pelotan jokatzegatik.


—Eskolakumeen artean onenarik ahal zinen?

—Bai. Ni hautsiko ninduenik ez zen. Ni baino zaharragoekin ibili ohi nintzen beti. Nere adinekoetan neregana urratzen zenik ez zen. 10-11 urte 20 urteko mutilekin eta jokatu ohi nuen. Horregatik detzen zidaten «Txara Txiki». Indarrez ibiltzen nintzen galzki. Jateko ere fultamentu haundirik ez nuen eta, indarra falta. 12 urte arte ibili nintzen eskolan, baina ezer gutxi ikasten nuen. «Pelotan bezala ikasiko bahu», esan ohi zidan maiuak. Pelotan azkarra, eskola motela.

—Asko lagundu ahal zituzten pelotari izaten?

—Bat ere ez. Eskola piska bat eta bizitzeko ofizio bat ikastea nahi zuten. Horretan laguntzeko prest ziren. Baina pelotatik ez zuten gauza onik ikusten. Pelotatik ez zela bizitzetik uste zuten. Eskolan ez nuela aurreratzeko eta zapatarri sartu ninduten 13 urterekin. Nik, ordea, hartan baino pelotan zaletasun haundia. Zapatarritan ez nuela gauza onik egingo eta Comillasa eraman ninduten. Ea, han bederen, piska bat lotzen, zuzentzen eta zentzatzeko ninduten.

Baina ni lehengoan han ere. Pelotarako halazek bete. Etxeko anaia soldaduskara eraman zuten baserri itzuli behar izan nuen. 17ren bat urte izango nituen. Aste osoa lanean akitu ar-



TXIMIST-INDAR SAILLA

Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de manobra, distribución y control

P.A.T. (Alemania)

«Gruak» ez iraultzeko elektronikoko tresnak

CIT ALCATEL (Francia)

Zembakizko Kontrolak Ikusgaiuak

OLIO-INDAR SAILLA

Departamento HIDRAULICO

REXROTH (Alemania)

Olio-urez osatutako erabateko programa servo-reguladorea berekin duen motorak.

HYDRAMATIK (Alemania)

duen motorrak neurri aldakor eta iraunkorretan

SIGMA (Frantzia)

Isas lanetarako eta Obra Nagusitarako olio-urezko programak

INDRAMAT (Alemania)

Servo-zuzentzailea

MERKEL (Alemania)

Urrerengandik babesteko loturak eta lanak

FORSHEDA (Suecia)

V-ring reten loturak

RUAI (Italia)

Goi presiotarako uraga giltzadunak

TUROLLA (Italia)


Ozkadurazko uragak

HYDAC (Alemania)

Indar irakizkiak eta itzulerakoak

ADA

Uztal gisako euskarriak



Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO



Lantegi ta landolak:

Jolastokieta (Herrera)

SAN SEBASTIAN

Urrut. 353840 (7 art) ta

353440 (5 art)

Telex. 36173 GOIME E

Erakusketak eta denda:

Iparaguirre, 15 - SAN SEBASTIAN

Urrut. 428082 ta 428625

Ordezkaritza:

VITORIA ETA MADRID

PELOTA

Arbasoengandik datorkigun kirola

Norta harta pelotan ibili gabeko euskaldunak ez da izango. Etxe atarian, elizpean, arkupean edo frontolan, nonbait salo- ren bat egin ez duenik ez da izango gure artean.

Halere hil aldi gogorra izan du kirola honek. Futbolak li- luratu du jendea azken urteotan. Ikaragarriko arrakasta izan du eta du oraindik ere. Itsumen bat izan da. Gehiegizkoa. Kezka eta arazo guztien gainetik jarri zaigu. Jendea ergeltzeko eta geldotzeko erabili izan da.

Pelotak baino diru erosoagoa eta ugariagoa da futbolak. Pe- lotariak baino gizon haundiaok eta ospetsuagoak bilakatu dira futbolariak. Pelotalekuak urritu eta futbolzelalak ugaltu egin dira.

Pelotak baino diru erosoagoa eta ugariagoa du futbolak. Pe- ruetaraino jasoa izan da. Donostian bertan lau pelotaleku iz- kutatu dira: Urumea, Jai-Alai, Moderno eta Gros. Erdi ero- rian dira hauz eta herrixka askotako frontoiak. Etxe pilak ja- sotzen dira bazter guztietan, baina pelotarako leku berri gutxi egin da.

Halere indarbertitzen ari da azken urteotan. Gazte askok hartzen du parte txapelketetan. Jendea lepaurrearaino betetzen dira pelotalekuak partidu onak direnean. Garai bateko pelota- tariak baino gehiago irabazten dute oraingoak.

Berri ona da euskaldunontzat pelotaren bizitza hau. Ez gurea delako bakarrik, baita kirol bezala alderatzeko askorik ez duelako ere. Besoak, hankak, gerria, gorputz osoa jartzen du lanean. Gorputza ez ezik burua ere bai.

Hartu duen arrakasta eta abiada hau gal ez dezan, ordea, ondo zaindu behar da. Berritu egin beharko litzateke zenbait pelotaleku, beste zenbait aterpea ezarri beharko litzateke eta zenbait lekutan berri berriak jaso beharko litzateke. Batez ere ikastetxe eta ikastoletan erailki beharko litzateke.

Egiten den baino sariketa eta txapelketa gehiago egin behar- ko litzateke. Eta eskoletan eta ikastoletan, honetarako ere, irakasle edo maixu berezi bat ipini beharko litzateke. Maixu on baten ondoan ikasten da pelotan ere. Zenbait pelotari za- harrentzat arnasbide gerta daitelako honelako zeregin bat.

Azkenik, pelotaren ingurumariko erdal giroa alipatu nahi genuke. Zenbait pelotari eta pelota-ikusek erdaraz mintzatu ohi da, bat ere premiarik gabe askotan, gainera. Korredoreek er- daraz egiten dituzte joku-oihuak. Sarrera txartelak erdaraz ida- tzirik dira.

Euskal giroan ospatu nahi izan ditu Gipuzkoako Pelota El- kartek bere urrezko ezalak. Bertso-paperean lehiaketa bat ipi- ni du eta bertsolari jaiak dit bat antolatuta horretarako. Sarrera- txartelak eta egitaraua ere euskaraz egin dituela ikusi dugu.

Ez dadila egun baterako izan. Arlo honetan ere erabaki sendo batzuk hartu beharrean da Federazioa.

Gogoan izan dezagun denok Bertso-papera deitu lehen sa- ria irabazi zuen Xalbadorren bertso hau:

Kirola ta hizkuntza, horra hor bi gauza
luza dezaketenak herriaren hata,
baldin ez bazerauko erdalduintzen plaza,
salbaturen garelá badut esperantza.

zeruko
ARGIA

EUSKALDUN ASTEROKOA

UGAL ETA ZABAL
EUSKALDUNON ASTEKARIA

Izen-deiturak

Kalea Zenbakia

Herria (Prob.)

LANGILEA: KEZKATI ETA ITXAROPENEZ

Azken urte hauetako momen- turik latzenetan aurkitzen da, une honetan, langilea. Baina bai- ta itxaropenaz bete da ere.

Azken aldiko kinka honek us- te baino luzeago jo du. Lantegi asko lanik gabe edo aurkitzen da. Produzioa motel dabil, gos- teak goruntz ari dira, eta zen- bait lantegik kinkaren agiria be- regana du. Egun segurotik ko- bratuz dabilen langileak etorki- zuna ilun ikusten du. Langabe- zia, langabeak ugaltzen ari dira.

Ez da langile soilaren kezka bakarrik, gorenengo aukian agintzen diharduenak ere bere kezka agertu izan du maila ho- netan: bere menpeko guztiei la- na opa die.

Bestalde, etorkizunaren ilunak zenbait kapital uxatu du, eta in- bersio berriak egiteko zaletasun haundirik ez da nabarmendu az- kenaldi honetan.

Krisi aldian ere, oztopo eta zamarik nagusia, langileen biz- kar ezarriaz konpontzen dela gauza jakina da. Baina ez gai- tuz horretaz luzaz mintzatuko. Arazo larriagorik bai bait da gu- re artean.

Langileak bere etorkizuna sen- dotuko baldin badu erakundeak ere indartu behar ditu. Betida- nik, langileak bere talde eta el- karteetan aurkitu izan du indar- ra. Zoritzarrez, talde hauek ez dute aspaldi honetan behar ha- inbateko indarririk eta babesik izan. Ahal izan duten gisa, irau- na ekin diote; han hemenka bo- rroka eta etzabaidariek ez da fal- ta izan. Hala ere, kapitalaren in- darra nagusitu zaigu.

Etorkizuna, ordea, itxaropenez ikusten dugu. Orain arteko ne- kea ez bait da alferrik izan. Lan- gile erakundeek beste giro eta zabalkunderik izango duten itxa- ropenik ez dugu gaitzen.

Eta langile egiturak alpatzera- koan, sindikalgiintzari damalogu garrantzi gehien. Langilea eta sindikatoa elkarturik ikusi izan ditugu historian zehar. Elkarta- sunari eta sindikalgiintzari eske- rrak baliarazi izan ditu langileak bere eskubideak. Gero eta ga- rrantzizkoagoatzen jotzen da sin-

dikatoek gaurregun duten egite- koa.

Ez da gaur gaurko kontua. Sa- bino Aranek berak argi eta gar- bi ikusi zuen arazo hau. Langi- leak bere eskubideak baliarazi zitzen berak sortu, osatu eta in- dertutako taldeak beharrezko zi- tuen ezpairik gabe. Eta, geroztik, ondotoz geroztik, sindikal- giintzak izan du arrakastarik Eus- kalerrian.

Giroa, egoera, arazoak aldatuz doazenez geroz, bai jokabideak bai erakundeak aldatu beste erremediorik ez dugu izango. Le- henago langilearen aldeko kon- ponketa mota batzuk azaltzen eta eskaintzen ziren bezala, orain beste bide batzuk zabal- durik daude. Eta bide horietatik jo beste erremediorik ez dugu izango, egungo giroaren arabera bizi nahi baldin badugu behinik behin. Sindikalgiintza alpatzera- koan, beraz, ez dugu gerrate aurreko eran eta molde soiletan ezagutu genituenak gaurregun behar direnik esan nahi. Lehen- go enborretik kimu berriak sor- tu dira, zuhaitz zaharrak landare berriak sortu ditu, lehengoari,

egungo giroaz, jarraipena ema- naz.

Sindikato indartsuak dauden tokian politiko partiduek ere in- darririk erakusten dute. Gure ar- tean, eta guri dagokigunez, sin- dikato zabal, eraginkor eta in- dartsuak bagenitu euskal arazoa dela eta beste kuku batek joko luke.

Izan ere, herri arazoa konpon- tzeko herriar indar guztiek par- te hartu behar baldin badute, eta ni neu uste horretan nago, langile indarrak behar beharrez- koak zaizkigu.

Une honetan su eta gar, la- nean jende asko ari da. Taldeen harteko hitzarmen eta loturak sendotuz doaz, bakoitza bakar- ka indargabea delarik kidekoen laguntza bila jotzen du. Langile arteko indarretan ere hori bera sumatzen da; taldeak nolabait bateratuz doaz. Eta hor zer esa- nik badugun ustean gaude.

Egungo une hau, latza eta ga- rratza izanik, etorkizun itxaro- pentsua ikusten dugu lanik sen- do egitekotan.

MIKEL UGALDE

A Z P I M A R K A

«Militante harrigarri eta heroi- koak, mugarik gabe sakrifika- tuak, mirestera ohituegirik gau- de. Baina zera lortu behar da: jende guztiok besteen mireste hutsetik beren ekintza batetara pasa araztea» (J. Azurmendi). Eta bada horretan dabilenik.

—Euskal Herriarekiko jokaera zehatzaren berri eman diezagu- tela eskatu die Amatiñok «pro- veristei», baina oraindik ez omen du erantzunik jaso. Ez dezala itxaropenik gal, egun batetik bestera hel bailekioko erantzun zehatz hori.

—Hara zer dioten Azeitune- roak: teoria sasi-langileen jarrai- tzaileek diotenaz kontrara, «hu- rrengo gizarteko» ez baina, ga- urkoa da lana eta beldurrik ga- be, pedagogia berri eta euskal- dunaz jabetu behar dugu, betiko pittinkeriak aztertzen denborarik galtzeke. Arrazoiak du.

—Mendiagaren eritziz, Lan Ki- de Aurrezkiak bere berrehun en- plegatuei euskara ikasteko au- kera emateak gau ikastolari le- hiaketa egiten dio, baina Herria- rekin eta Herriarentzat denez gero, «bedeinkatutzat» jotzen du lehiaketa hori eta horrelako ge- hiago nahi luke. «Basque way of

life» berri baten ataburuan ote gaude?

—«Euskara jatorra, egia beza- la, berez da iraultzaile» (X. Kin- tana).

—«Jende oldeak, masak, indar- rikarria du, Portugalen bertan ere ikusten ari garenez. Baina indarririk izan dezaten, lehenengo, gizaldrak, masak, indar bat bi- hurtu behar dira. Organizatu egin behar dira» (J. Azurmendi).

—Zenbait euskaltzaini, bi erregeri zerbitzea bezain zaila dela gogorazi dio Amatiñok. Ebanjelioak horrela dioten arren, gure lagun batzuren trebetasu- naren berri bat ere ez daki Ama- tiñok!

—Egunkari itxurazko egutegia aspaldidanik ezagutzen dugu Euskal Herrian: Arantzazuko! Huraxe izan nuen, nik behintzat, lehen euskal Catón-a.

BERRESALE



zeruko
ARGIA

JABEA:
Nafarrea, Kantauri eta Ara- goiko Kaputxinoak.

Burlada, Kale Nagusia, 50-1
Donostia, Okendo, 22
Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezelza
Iturria

ARPIDE SARIA:
Berruan 400 pezeta
Korreo batasun- tako herrietan 620 pezeta
Atzerietako bes- te herrietan 460 pezeta
Alirez Aldez aurre- tik galdetu

Salmenta (ale- bakotza) 10 pezeta

Moldiztegia eta idazkolea:

«Gráficas Navas»

A. Adoain, 1. IRUIREA

D. L.: NA. 80-1963

Berriak

Abenduaren 27an, Gabon Abesti Sariketa eratuko da Errenterian, bertako «Ereintza» elkartearen ardurapean.

Foru Enparantzan izango da, iluntzeko Tetan. Saria 20.000,— pta. guztiz, lehendabizikoa 6.000,— hai-na izango delarik.

Egun berean, Eibarren, joan zeneko ekainean amaitu ezinik geratu zen kanta jaialdi berbera eratu nahi luke «Arrate» elkarteak.

Xabier Lete, Lurdes Iriñdo eta Gontzal Mendibil kantariak alde batetik, eta Laja-Isturide trikitilari bikotea bestetik. Pantxoia eta Peio falta, beraz.

Biharamunean, Gerediaga Elkarteak, Gerediaga-ko ermitan bertan egiteko da bere Biltzar Nagusia.

Aurten ehun urte betetzen dira Durangaldeko hamabi herriok Gerediagan azken aldiz bildu zirenetik, Canovas del Castillo-k Euskal Herriari foruak kendu aurretik, hain zuzen.

Intelektualen bat edo beste izan ezik (eta nahiezta gainera), euskal kulturak esportatzen duen gauzarik bakarraketakoa folklorea dugu, kanta eta dantza batipat.

Urtarilaren lehen hamar egunetan, Biarritzko Olatarra taldeak Londonen ihardungo du.

Euskal kulturaren alde Altsasuan

Altsasuako «Gure Etxea» elkarteak eratua du aurren III Euskal Kulturaren Alde deritzan hitzaldi saila.

Lau hitzaldi izango dira guztiz, azaroaren 29tik abenduaren 20ra arte larumbatero, historiari, ekologiaz, bilengismoaz zein ekonomiaz, egungo Nafarroako egoera sozio-politikoari erabat atxikia, ahalik eta mailarik praktikoa eta eraginkorrenean.

Lehen hitzaldia azaroaren 29an eratu zen. Maria Luis Larunbe, Lege eta Politik Zientzien lizentziatua, Nafarroa 1512 delako gaiaz mintzatu zen.

Abenduaren 6an, Pablo Aresok Uraren abiadura eta biologi ondorioez hitzegingo du. Hilaren 13an M. Jose Azurmendi bilengismoaren arazoa aztertuko du. eta 20an, azkenik, Nafar Merkatalgo Ganbarako lehendakari eta Iruñeko Ikastolako zuzendarietako bat den Karlos Garaikoetxea Nafar Ekonomiaz arituko da.

Hitzaldioak, erdaraz, «Gure Etxea» elkartearen getetan eratuiko dira, iluntzeko 8,30etan, Lan Kide Aurrezkiaren diru laguntzapean.

«Gure Etxea» elkarteak moldatu duen programaren inguruan, «Sasuko Gazteak» deitu taldeak kanta saio bi prestatu ditu.

Lehena, hilaren 7an, Etxarri-Aranazko abesbatzak, kanta saio bat eskainiko du eguerdiko 12etan.

Eta, hilaren 12an, gaueko 8etan, kanta, bertso eta txalaparta emanaldia. Artza analak eta Mikel Laboa arituko dira. Bertsolariaren izenik ez da, lerro hau idazten ari garelarik, erabaki.

«Ortiziken» kantari talde berria

Ipar aldeko kantari talde batek ORTIZIKEN izeneko kanta saio berri bat sortarazi du. Lehen aurkezpena, abenduaren 5ean egiteko zen, Donibane Lohitzunen.

Euskal Herri guztian zehar asko zein guti ezagunak diren hamarren bat kantari bildu da saioaren moldaketaren inguruan, hots: Pantxoia eta Peio, Iker Robles, Manex Pagola, Iñaki Urtizbera, Maider Etxezarreta, Eneko Labeguerie, Maite Idirin, Jean Treku eta Pantxika Aldalur. Kantariez gainera, Xanpun bertsolariak osatzen du emanaldia.

Partaideen hitzak erreplikatu, «kantaldi bizi bizi bat, dena gure herriko hezurrez eta gogoz hornitua» izan nahi luke ORTIZIKEN deitu kantaldi berria, antzerki zerbaite, kanta, bertso eta dantza zein argazki agerraldiak ere programaren barrera azaltzen direlarik.

Frantses telebistak alde aurretik zabaldu du hataz erreportaje labor bat, eta badirudi jendea iras gus-tatu zaiola.

Donibaneakoa, saio errazkada luze baten hasera izan dadila.

Euskarari buruz inkesta bat

Eibarko «Universidad Laboral» delakoan, inkesta bat egin da euskarari buruz. Orain arte behintzat erabateko giro arrotz bat nagusi izan da ikastetxe honetan. Inkesta hau egiteko burutu diren ideiak eta ondoko erantzunek etorkizun oparogorik erakarriko ahal dute!

Mila eta berrehun dira ikasleak, eta bostehun eta laurogeita hamabi erantzun dutenak. Hona zenbait dato zehatz:

Euskaraz ikasi nahi lukete 444	
Ez dakite ...	189
Zerbaite ...	61
Erraztasunik ez ...	82
Herri euskarara traketza ...	59
Ez dakite idazten ...	21
Idazten ondo dakite ...	23

zenbat gara

Euskaraz gainera, historia eta literatura 449	
Euskaraz ikasi nahi dutenen artean	
Guraso Euskal Herrikoak ...	273
Guraso immigranteak ...	77
Kanpoan jaloak ...	94
Ikastaro oso bat jarraituko ote luketen?	
Bai ...	380
Ez (arrazoi batez zein bestez) ...	64
Unibertsitateak ezingo balitu ikastaroaren gastua ordaindu, ikasleek ordainduko ote luketen?	
Bai ...	286
Ez ...	117
Zenbat denez ...	41
Azken galdera honek ez du ez buru eta ez hanka, euskara gaixoarean anekdotario jorirako izan ezik, baina, tira, horra hor inkesta. Ez da guti.	

Euskara errentagarri denean

Arrasateko herri emaileak, garaiz eman zuten berri: Lan Kide Aurrezkioko Bulego Nagusian guztioek ekin diote euskara ikasteari.

Guztia edo gehienak behintzat, 240tik 220k alegia. Gainerako hoge hoi en artean, hainbatek euskaraz ondoko dakiela edota jarritako eskola orduetara iristek ez duela.

Benetan soziologikotzat azter daitekeen gertaera hau, ez da batpaten sortarazi. Beti bezala, honetan ere, arrazoiak guztiz konplexoak dirateke, zeren giza fenomeno batek inoiz gutitan du motibazio bakar bat.

Sustraiak inon bilatzekotan, orain dela pare bat urte —eta Xabier Zubizarretaren ardurapean— Arrasateko Teknik Ikastetxean prestatu ziren euskarazko ikasaldietan aurki ditzakegu. Hizkuntza laboratoriorik bat muntatu zen, CIM (Centro Idiomas Modernos) delakoa. Frantsesa, ingeleza, alemana eta euskara ziren lehenengoz behintzat ikasgai. Esperientzia hartan, Xabier Zubizarretak agian espero ez zuena frogatu ahal izan zuen, hots, euskara irakaskuntzaren errentabilitatea, euskara ikastaroak errentagarriak izan zitezkeela.

Lehen pausoa emana zen. Ondotik, Xabier Zubizarretak jarraitu zezan, Teknik Ikastetxeak Xabier Mendigurenen zerbitzuak lortu zituen, astein lau egunez. Bitan, materiala prestatzen ihardun ohi du Bilbon, eta besteetan Arrasaten bertan «in situ», ikastaroen arduradun eta kontseilari.

Honek guzti honek erakarri du, azken batez, Lan Kide Aurrezkioko Bulego Nagusian muntatu berri den ikastaroa, bertan lanean ari direnentzat apropos burutua. Ordu erdiko ikasaldia da, astelehenean ostiralerara. Goizeko 7,45etik 8,15era. Lehen ordu laurdena ikasleak jartzen du, eta bigarrena aurrezkiak bere kontura.


Ikasaldiak hainbat sailetan burutuak dira, jakintza mailaren arauera, hamazazpi irakasleen (ordainduak) zuzendaritzapean. Guztion arduradun eta gestiolari, Xabier Mendiguren.

Denetarik

Azaroaren 9an hil zaigu Jose Ignacio Etxeberria, Donostiako azken bertsolari zaharren omenaldian parte hartu zuenetako bat.

Etxeberria Urrestillako «Otalastegi» baserrian jaioa genuen, 1894 urriaren 8an. Bertsolari baino bertso-berri egilea. Auspua Liburutegian Mendi-Gaiteak (105) bertso mordoak bat utzi ditu.

R.S.V.A.P. delakoaren lehendakari izan zen Alvaro del Valle-Lersundi izena (G. B.) jarri behar zaio Ibaetako (Donostia) ikastetxe bati.



Donosti-Aurrezki-Kutxak, Donostiako «Buen Pastor» katedralari buruzko alekha monografiko bat argitaratu eman berri du, Luis Murugarrenen prestatua.

J. M. Donosti-ren hitzaurrearen ondotik, egileak katedrala erakitzeko asmoa sortu zenetik gaur arteko ipi-apa guztiak kontatzen dizkigu.

1897 urtean konsagratu zen, uztallaren 27an, eta honako hauk ditugu egun hartako bertsoak:

Gure Jaunaren fede santuko kristau bide onetuak, eliz berrira guzuzen guziyok egitera erresuak; bere ondun artuko gaitu pozaz bada Jaungoikuak, bazterturikan orain arteko egin diran pekatuak.

Laurehun bat ikasle ari da Iruñeko euskal alfabetakuntzan. Ikasaldiak «Arturo Campion» akademiaren eratu ohi dira, Patxi Zabaletaren zuzendaritzapean.

Hitzaldiren bat edo beste ere izango da, urtarritik aurrera seguririk.

Ez da oraindik erabaki aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokako Disko Saria.

Disko pila bat aurkeztu omen da, eta dagoeneko lau epai-mahaiko izendatuak. Nor diren ez da saria erabaki arte jakinaraziko. «Top secret».

Oraindik piska bat luzatuko omen da epala. Disko saria eratzen dela lehen urtea denez, ere zehatzik gabe azken bolada honetako disko guztiek parte hartu ahal izan bait dute.

«Escuela-Cantorum» deitu kanta taldeak dei bat egin dio Gpiuzkoako Ikastolen Federazioari, bere saioak ikastolaren alde eskaintzeko prest dagoela esanez.

«Escuela-Cantorum» delako taldeak, kanta eta dantza saio bat prestatu du, zenbait kantari ezagunekin (Benito Lertxundi, Xabier Lete, Antxon Valverde...) batera.

«Regimen especial»

Madrilgo Gobernuak «Regimen Especial» delako bat proposatu du Bizkaia eta Gipuzkoa probintzietzat. Batzorde bat izendatuko da arazoa azter dezan. «Decir que en Euzkalerria no hay, precisamente, un clima de entusiasmo político hacia el sistema es enumerar una verdad, demasiado evidente, para ser discutida. Vizcaya y Guipúzcoa han vivido durante muchos años en un ambiente de clara frustración. Honela mintzatu da Jose M. de Areilza EL DIARIO VASCO egunkarian.

Frustrazioa kontseilari txarra da. Ondorio konformerraz zein eszeptismo edota inibizio hutsak sort ditzake. Kalean sumatu ahal izan dugu berriki: hainbat urtetako antzutasunaren ondorio emaitzarik txiki-ena ere irribarrez eskertzeko prest dagoenik bada. Alderantz, nolabaiteko lehen urrats hoik arbiatu nahi litzuketen ausartak ere ez dira guti.

Kontzeptuak argitu beharra dago lehenik. Gauza bat da 1876 urtean deusztatu ziren Euskal Herriko Lege Zaharrak edo foruak. Beste bat haren hutsua nolabait disimulatuz asmatu zen ekonomiko kontzertua. Eta hirugarren bat, guztiz desberdina, orain proposatzen den «regimen especial» delakoa.

Azken hau dugu aztergai, argigarri, zeren foruak indarrez kendutako eskubide batzuk ziren bezalaxe, «especial» kalifikatiboa horri, aldiz, pribilegio zentzu-dario, estatu moderno baten barruan nahiko eztaba-dagarri gaur egun.

Antza denez, bestalde, honako regimen hau lege eta ekonomiko alderdi soilean kokatua datorrigula dirudi. Rejio mailan planteatzen daitezkeen histori, kultur eta politik ikuspegiak ahazturik geratzen bide dira.

Ezin baztertu, ordea, baldin «problema vasco» deritzaten horri egiazko irtenbide bat eman nahi bazaio. Eta ez dezala gero inork pentsa, ekonomiazko arau batzuez herri kezka batzuk lasaituko diren, orain proposatzen dena eta duela ehun urteko autonomia inola ere gonbaragarri ez direlarik.

Azkenik, «regimen especial» hori taxutuko duen batzordeari bagazkio, ezin ere ahaztu, elkarriketza posible izan dadin, bi parteon iritzia ezagutzea behar beharrezko dela, bai eta biak guztiz errepresentatiboak izatea ere.

Herri hizkuntzei buruzko lege berria... nolabaiteko ekonomiko akordioa... goxoki ederrak eta «garai» emana gero, euskaldunentzat. Diplomazia joko bat baino zerbaite gehiago izan dadila, zeren, kaleko jende arruntari azken batean ardura zaiena zera da, nola eta noiz herri guzti hori praktikan egia bilakatu? Edota oraintsu, Panamako enbajadoreak leun-leun Madril-ean ducnez: «Es hora de pasar de la emoción a la acción».

Politik Zuhurtasuna

Administrazioarekiko ekonomiko kontzertua bigarren mailara pasatu da, ordea, azaroaren azken astean.

Indultua (?) eta Oritzagioa dutxa hotz bat bezala erori dira hainbat buru erdi ixaropentsuren gainera. Zuhurtasunaren garaia bizi dugu. Zuhurtasuna, bai, ez erabateko helburu bezala noski, histori une konkretu bateko jokabide soil bezala baizik.

Posibilismoak aztertzeko ordua da. Elkarriketaren sasioa, zorionezko «interlocutores válidos» hoik nola hala bilatzeko, planteamendu politiko batzuk egiteko, eskari zehatz-mehatzak azaltzeko.

Hainbat urtetan zain egon ondoren, pare bat hila-bete gehiago ere egon daiteke. Ahalegin txiki bat gehiago. Ez dezatela esan ahal gu hasi garenik.

AMATINO

Euskal Herria

Gaur, Europako eskualde edo errejiok, pizkunde garai batetan aurkitzen dira. Mugimendu eta sentipen hau, munduko aldizkari guztietan irakur dezakegu. Hor daude Eskozia eta Gales, Kozegia, Bretaina, etab. Britanier herriak (Eskozia eta Gales) gero eta askatasun gehiago eskatzen ari dira. Frantzia bertan, errejiionalizazio lege bat oso hurbil da. Espainian barru, ia politik talde guztiak errejiionalizazioaren alde dira. Nolabaitko errejiionalizazioa, behintzat, Eskualde nahia lurralde hauetan sumatzen da: Galizia, Asturias, Euskal Herria, Aragoi, Katalunia, Valencia, Balearetan eta Kanarietan. Andaluzian, lehengo urratsetan daude. Hau da gaurko egoera arazo honi buruz. Baina guk, euskaldunok edo euskotarrak, arazo berezi bat dadukagu, eta ezta txantxetako gauza bat: gure Herria, frontera batez hautsia dagoela. Biharko Europak elkartuko gaitu... Baina, Hego Euskal Herrian, problema txit berezia dugu: «vascos» eta «navarros» arazoa. Guretzat, euskaldunontzat, gure herriak zazpi zati ditu. Baina, besteentzat, erreallitate hau eztago oso garbia. Prentsan eta partikularren ahotan, malzezi entzuten dugu: «los vascos» («vascongados», en orde) eta «los navarros»; «Navarra y el País Vasco»; «industria vizcaína» eta «industria catalana», esate baterako Bizkaia eskualde bat balitz bezala eta ez euskal probintzia bat. Zoritzarrez nafarrek, nafarrek eta ez euskotarrak, direla aitortzen dute; denek ez, zorionez, baina sektore batek bai. Arazo larria hau da: askorentzat, gure Hego Euskal Herria eztagoela ongi definitua. Askotan «región vasconavarra», «el Norte», «provincias Vascongadas y Navarra» entzuten eta irakurtzen dugu. Baina ez diote «país galico-coruñés» edo «provincias catalano-barcelonesas». Enderaz, gure izen bakarra «País Vasco» edo «Vasconia» izan behar du, Hego aldeko lau probintzientzat. Gure Herria, luze zabaleraz, txikia da: ezin dugu geure batasuna puskatu. Arazo hau, benetan harzeakoa da. Gure agintariek eta Diputazioek zerbait egin behar dute honi buruz. Euskaldunok partikulari, ahal dugun guztia egin behar dugu. Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Arabak, «País Vasco» edo «Vasconia» izan behar dute, hautsi ezi-nezko batasun bat bezala, eta efektu guztietarako.

Kontuz honekin!

«Bizkarolazaga»

Militantego heldu baten premian

Ez dakigu zer gerta dakigukeen. Politika mailako hauziak nondik nora jo dezaketen. Nolanahi ere, ordea, ez dezagun itxaropenik gal ea noizpait, hainbeste urteren zehar talde lanera murrizturik aurkitu den politikagintza populu osora hedatzen den. Nolako baldintzetan? Etendura demokratikorik gabe? Demokrazia formalik ikusi ahal izango ote dugu denbora gutti barru?

Modu batez ala bestez, aipatu dugun demokrazia formal hori, hots, Mendebaleko burges politika molde-rik ezartzen bada (zer guttiagorik hasi ez gero?), politikabide berrietan barne ohitzen has gaitzke. Jasaten dugun egoera politikoa delat, besterik ezinean, langileria eta populu osoaren baitarikat ihardun behar izan da. Talde lana; gazte ausart batzen burruka, guttiengo baten esku egon dena.

Modu honetan izan ere, ezin da sekula eta inon giza mugimendu datu eta eratueta ihardul ahal. Hau ezinezko gauza da. Hori bai, dauden bezala egonik, gizarte klase herrikoia leher egin dezakete asaldura espontaneo batean kalea harturik. Holako zerbait ikusi ahal izan dugu euskaldunok. Hala guztiz, klase horik barneik eratutik eta tajuturik baino gehiago daude, nolapait kanpoan ezaririk dagoen politik mugimenduen eragipen baitan. Ez da aukerarik izan, hain zuzen, zuzen zuzenean eta langile politika batek eskatzen duen baldintzarik oinarritu-koenak beteaz, zerbait egiteko.

Euskal herriko klaseak neurri handi batean kontzientziaturik daudelako, populu erakundeei gauzak eraztu egiten zaizkie lanerako. Esan-eko gurek, politika iraultzaile baten ezarpenarako soroa landurik aurkitzen dela, ez dagoela goldearekin



hasipenetik hasi beharrik. Kontua, beraz, euskal alderdi eta erakundeen esku dago hemendik aurrera. Ea nor ereiten duen haziak gehiena eta onena.

Baina lehen eman ditugun arrazoiengatik orain arte ez da deus handirik egin alor horretan, eta batipat abertzale ikuspegi eta jarrera batetik. Ez dago esperientziarik, hortaz, Guztiz horrek ondorio gaitzak izan ditzake, jokabide hontan barne militantego heldurik eta presturik ez bada. Eta dagoenik ezin da esan, inoiz lan serioak egiteko aukerarik izan ez denean, eta zuden eta dauden muga heriotan ahalegin apurtxo batzuk kenduz, besterik egin ez denean. Militante abertzaleak beste burrukabide batzuetarako joera izan du, bera gehiago ase zezakeen hura hautatuz. Militante eredu hau nagusitzen da: debetako eztabaidetan nazkatuta dagoena, kritika eta autokritikaren gogoeta baitan gutti ibilia, gogozko duen ekintzari fin helduko diona, gogorra eta arras entregatua bere zereginarekiko.

Dudarik gabe, militante eredu horrek bertute franko badiu. Bereziki ezin egokiagoa da ekintzabide ba-

EUSKAL KAZETARITZA

Bizkor, egoki eta sendoa izan dezagun

Egizu harpide berri bat.

tzutarako. Ezin daiteke ordea, hainbestekorik esan beste lanbide batzutan barne abiatuz gero. Akatsak edo, hor bat edo beste aipatu ditugu. Jakina da, inork ez duela lan orotan gaitasun berdina eta hori zilegi da horrela izatea. Zilegi delarik, ez du ezerk euz justifikatzen halaere, eta arazo hau oraino bizirik dago.

Nolabaitko aldaketa baten aurrez aurre egonik, eta giza mugimenduen hedatuen aukera bat agian sor daitzekenez, lan honetarako behar ditugun militante molde eta gailu oro eskuratzen hasia txit premiazko dirudi. Eginkizun gaitza noski, poliki poliki eta astiro egin behar dena. Diziplina zorrotz bat eta enpeinu leial bat duen militantegoa aski ez delarik, diskurso mailan edozein debata edo bilkuran gauzen azalpenak egiteko gaitua. Hitz, kontzeptu eta eritien langilea; hots, teoria mailan urratzen den burruka ideologiko-politikorako hornituri dagoena. Asko eskatzea ote? Behar bada bai. Dena den, jarrera abertzale sozialista batentzat ezinbestekoa da eta hildo hontatik doan mugimendua bati zor dioguna. Ez da izan aski sekula, eta hemendik aurrera are guttiago, hitzez eta argumentuz errebatu behar ziren planteamenduen, «pajas mentales» bataiatutik bastez- rren uztea. Eta besterik ezean, ukabil kolpe batez isil erazi arerioa, oker dabilena esan-eta isiltzen ez bazen. Euskaldunok herriez ere hartuko gaituzte basatitza!

JOXE M. ODRIOTOLA

EUSKAL HERRIKO EGUNKARIAK ELKARREN GONBARAGARRI

EUSKAL HERRIKO EGUNKARIEN XEHETASUNAK

1-P.	Izenburua	2-E.L.	3-M.	4-K.I.	5-H.I.	6-P.	7-K.M.	8-Z	Guztiz	Erdia	Aleak
5	Diario de Navarra	5	6	6	7,5	9	7	8,4	49	7	36.408
7	La Gaceta del Norte	4,3	5	4,5	7,5	10	6,5	10	47,8	6,83	84.503
10	La Voz de España	4,5	5,8	6	6,5	8,2	6,5	8,5	46	6,57	38.465
12	El Correo Español	5,3	3,1	5	6,7	9	6,7	9,8	45,6	6,51	80.491
19	Diario Vasco	4,5	4	5,2	5,5	7,8	6,3	8	41,4	5,91	30.864
46	Norte Expres	4,3	4,8	4,4	5,2	4,1	4,1	—	26,9	3,84	—
48	Nueva Rioja	4,1	4,8	4	5,2	3,2	5,1	—	26,4	3,77	—
50	Unidad	2	3,9	2,8	2,3	4,3	5	4,3	24,6	3,51	11.118
72	Hierro	2	1,9	2	2,5	3	3,7	—	15,1	2,16	—
84	El Pensamiento Navarro	0,5	2,1	1,2	1,8	4,1	2,9	—	12,6	1,80	—

1.—Postua. 2.—Editotial Linea. 3.—Muntaketa. 4.—Kritik Irudia. 5.—Herri Irudia. 6.—Publizitatea. 7.—Kazetari Maila. 8.—Zabalkundea.

Madriren argitara eman ohi den EN PUNTA hilerokoak, Espainiako egunkariak buruzko istudio zehatza bezain sakona azaltzen du azken alean.

Interesgarri deritzagu Euskal Herriko prentsaren berri, behintzat, emateari, ez bakarrik eskuetan izan ohi ditugun egunkari hotsen ikuspegi hotz bat emateagatik, baita edota areago, inkesta berak dienez, euskaldunok bait gara Espainiako Estatuan barrena egunkariak gehien irakurtzen dugunok, ale bat 8,3 biztanleko alegia. Beraz, zerbait irakurtzen dugu, egunkariak baino ez badira ere.

Bederatziz dira (Rioja kon-tatu gabe), Euskal Herrian ateratzen diren egunkariak. Zazpi goizeko eta bi arratsal-

deko. Lehen zazpi hoiatik bost, Espainiako hogeni lehenengoan artean kokatzen dira. DIARIO DE NAVARRA zerranda guztiko boskarrena dugu zazpi punturekin, LA VERDAD (7,41), LA VANGUARDIA ESPAÑOLA (7,28), HERALDO DE ARAGON (7,14) eta TELE-EXPRES (7,06) dire-lakoen atzetik. Guztiz ehun eta hiru dira Espainiako egunkariak, %65,1 batz besteko (erdiko) bost puntutara iri-s-ten ez direlarik.

Dena den, koadroan azal-tzen denez, Euskal Herriko egunkariak publikitate eta za-balkunde (probintzia eta re-ji-o mailan bada ere) arloetan gehiago dira, gainerakoetan baino. Bestalde, dudarik ga-be, ontxoena Iruñeko DIA-

RIO DE NAVARRA da, lehe-nengoan artean zabalkunde-aren inzenziaririk gutien du-er-larik, gainera.

Lan guztiz serioa da, Kritik Irudia (Imagen Critica) eta Herri Irudia (Imagen Popu-lar) direlakoak zifra soilak baino matizazio gehiago be-har balute ere, zein kontes-totan egiten den arabera etab. Nolabait esateko, Herri Irudi horretaz puntuazio ge-hien duen Espainiako egun-karia Madrilko ABC (8,2) da, eta hori ikusi ondoren batek ez daki Irudi popular hori prestijio tradizional huts ba-ten ondorio den azken ba-tean, ala herriarenganako egiazko atxikimendu eta ko-munikabidea.

L.A.A.

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria, 10 - Urrutizkifia: 41 77 51 - Etxekoa: 42 27 00 - DONOSTIA

ETXEKO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'idez ATOMIZADO LAGARTO — Jabolera erabil! beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — Jabolera ber dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako Jabol bakarra Etxeko-andrearentzat neskaerik egokiena.

JABON LAGARTO!

KRITIKAREN KRITIKA

Hemen zehar kantuz aritzen garen batzuek adiskide eta lankide dugun Antton Valverde bere lehen disko luzea (L.P.) atera berri du. Horrela izanik, eta Anttonekin duan harremana estua denaz gero, disko hortaz zertxobait esateko ez naizela egokia norbaitek pentsa lezake. Ez naiz iritzi berdinakoa. Gaiñera, etsaien eta, behar bada neutralen kritikaz ere ez naizenez fio, zillegi bekit hurbiletik jarraitu antzaitzen Anttonen lan hortaz zerbait esatea.



Kritika bat neutrala izan litekeek nik ez dut ia sinesten. Kritika batek behar luke, bai, neutrala izan; baina neutraltasunak ere baditu bere baldintzapenak. Euskal Herrian denek edo gehienek elkar gehiegi bezala ezagutzen dugunez gero —edo ezagutzen dugula uste dugunez— joera dugu, kritika batean kritika-gaiak hotzean aztertzez kanpo, norberaren sentimendu eta aurre-iritziak tartean sartzeko. Eta zergatik ez? Polemika eta mesfidantza giroan bizi gara, ba-koiatzak bereari eutsiz, eta gutxi dira edozein gai epaitzerakoan beren iritzi eta gustoen arabera gehiegiok lerratzten ez direnak. Beraz, ni ez naiz "objektibo" izango, eta ez zait axola ere.

Azken urteotan, gure Herrian sortu diren kultur-lan gehienek buruzko kritika objektibo askorik sortu denik, ez dut uste. Gaiñera, arte-gaiak doakien kritika ("arte" hitza koka-lla artean jartzen dut) beti da sub-jetibo. Juzga-oinarri objektibo eta zientifikoagoak dituzten gaiak buruz ere askotan horrela gertatzen bada, pentsa zer ez den gertatuko "beste" gai irudimenor eta neurri zehatzik gabeko hoieta. Horrek ez du esan nahi kantagitarri buruz, adibidez, iritzi objektiborik eman ez litekeenik, eta ekintra horrek bere arau objektiborik ez duenik; baina, ohiurazko dugun bezala, gai hoi buruzko objektibotasuna beste faktore askorekin nahasturik joan ohi da: politika, sozial sailkatzea, guto pertsonala, gai bakoitzari buruzko jakintza gehiago edo gutxiago mugatua, etabar, etabar.

Xelebreia izan liteke, baina gertatzen da, adibidez, honelako gauzak entzutea: "Hi, halako lekutan, ez haute maite" edo, bestalde, "asko estimatzen haute". Edo: "Han halako dea nagusi; bestek jai dezue". Ederki zeok.

Halako tokitako hauek edo haiek ez ahal dira ba kapaz nere, haren edo beste birgarrenen lanari buruz jakintza objektibo bat, gauza on eta txarrak bereizte, edulitzeko? Behar lukete izan, bai... horren eskak ari gara aspaldian, baina ez da erraz. Eta hori lagunak edo, txarre-nera jota, neutralak izan behar gertuzkeen hoieta mintzatuz, ze, etsai edo erdi-etsai ditugunez hasiko bagina (edo haiek gutaz hasiko bali-ra)... eutsi!

Gauza hoieta eskandalizterik ez du merezi. Bestela mila bider egiñak ginateke gure buruz beste. Bikitmak ote? Ez. Hemen ez dago berrero eta biktmarik, hemen dagoena dago, zatiketa nabarmen bat.

Arazo hauei buruz jenderik objektiboen, onenean, jende soila da; arrunta edo ez hain arrunta den he-

rri entzule, ikusle eta babesle hori. Jende multzo sentimental eta intuitibo horrek mila bider etsipenetik salbatu gaituela gero eta ziurrago nago: kantaldietara joaten den entzuleak, diskoak edo liburuaren erosten duen euskaldun apal eta ezezagunak, haurrak ikastetara bialtzen dituen eta, hala beharrez, kuota garestiak bihotz on eta berot ordaintzen dituen gurasoak, etabar. Hoiak, zerbait egiten dugunei buruz kreditu zabal eta muga esturik gabekoa eskainia dute, eta lanetan ari den gutzia omentzeko prest daude, pulamentu pikta bat agertuz gero (pulamentu eta zentzu).

Baina hori horrela bada, nun kritika, noren gain? Ze, dakigunez eta sumatzen dugunez, jende jakitun eta zehatzagoaren iritziak ere beharrezko gertatzen dira. Hoiak estimulu berezi bat eskaintzen dute; iritzi hoi ez entzun-arreta berezia jartzen diegu, behar ditugu iritzi hoiak geure jarduren euskarri eta argigarri bezala. Jose Azurmendik bere Iraulza Sobietarra eta Literatura liburuaren kapitulu-uharte batean idatzi duen bezala, kritikaz eta kritikaren gehiegieria hantuste edo itsuetaz oso sumindurik gaudu; eta sumindurik gaudenez gero, gure aurka jaurtiketa izan den edo izan litekeela uste dugun edozerren aurrean defentsiba bizian jartzen gara: zeharkako begirada illun eta urdusuz tellatu guztietara so eginez, ladirila kokaorra nondik orokor... Edo bestela, "izorra bitez", "que le den por..." eta horrelakoak esan edo pentsatuz.

Bai, nahi duguna esan edo pentsa genezake; baina egia da burur-burur kritikak zehatz, zahar eta justiziadun baten beharretan sentitzen gaudela. Behar bada, geure burua umertzat batenaren gisa daku-sagu, eta erruki pikta bat eta bigintasun supergarria espero izan ohi ditugu, eta hori ere oso zillegi iruditzen zait. Baina, azken finean, kritika azkar, sendo eta borondate onekoak argitasun asko eman liezaguke.

Kritika hori falta baldin bada, arrazoi askorentzat da, eta denetan arrazoirik lehenen eta nagusienak, hainbatetan alparaturiko "gure egoera". Ze, da bada egoera hori? Itsumustuka dabilenaren egoera, dudarik gabe; kanta batean, edo poema batean, edo slogan batean, edo alderdi itxurako baten antepoietiko batean, edo zenbait jarrera "gogor" eta "aurrerakoi" itxurakoetan bere salhabidea, bere argia, bere egia behin eta betirako aurkitu nahi izan dituen herri baten egoera. Eta, jakina, herri horrek —eta kritikak bidenabar billatzen zutenik ez dute aurkitu. Norbaitek esan lezake: "publikoki lan egiten duenaren ahulezia, ezjakintasun, ezirebetasun eta xpelekieraren kulpaz". Bai, jakina, hori kontu zaharra da.

Baina, bene-benetan, mota horretako salhabiderik aurkitu ez badugu, espresio mota guzti hoiak salhabiderik eskaini ezin lezaketelako da. "Salhabidea" hitz ikaragarria da, orratio. Esajerazio bat. Norbaitek hainbeste eskatu ahal du ba itioz? Bene-benetan, ez; baina askotan eskatzen zuela zirudien. Eta horrek min asko egin diegu elkarrir.

ZERUKO ARGIA

Euskaldunon astekaria gerta dadin

Egizu beste harpide berri bat.

Kultur-neurosis beltzenezan erori nahi ez badugu, geure kulturaren itxura asko "joku" bezala hartu behar gertatzen, horrela baitira. Zer da ba, azken finean, kanta bat, poema bat, kuadro bat edo nahi den beste edozein, adieraz estilo baten joku baidak? Horrek ez du esan nahi espresioaren moldeak, eta molde horren jokoak, komunikazioa ito, estali edo menpekotu behar duela uste dudarik. Formalismoaren jokoek eta artearen "enigma" bilok puntan jartzen dizkidan... Aspertu egiten naiz, hobeiki esan, itozterazko aspertu, gauza hoiak.

Baina horrek ez du esan nahi artea adierazpen oso eta argi eta garbi denik ere. Artea edo dena delako hori ez da errealitatearen azterketaren zati, zaituko xume, apal bat baidak. Eta adierazpen hori gero eta zabalgago izan dadin nahi badugu, pazientzia pikta bat beharko dugu; pazientzia, eta, nola ez, esjenzia. Joku hori sakondu eta borobildu bai, egin behar dugu, baina absolutu bihurtu gabe, eta, mesedez, joku horren baldintzapenak (lekua eta unea) kontuan hartuz.

Gure abesten efektu "katartiko" eta eragile eskasa da, jakina. Agian gero eta sakonagoa izan liteke, baina pazientzia beharko da, gure Herri honetan beste mila gauzatarako bezala.

Ordea, eta guzti honen ondoren bezala, norbaitek galdegin lezake: "Beraz, ekintra guztiak eta jardun guztiak zure iritziz on eta beharrezko ahal dira, beren txar eta nahasian ere?". Eta erantzuna: ez, jauna. Eta hor dago kaka, eta herriro histerako "elección de bando" edo "partir pris" hietara goaz. Hori beste arazo bat da, askoz bihurtuagoa, eta esan nahi izan dudun guzti honen lotura estua duena. Baina beste baterako utzi beharko.

Antton Valverderen diskoaren kritika edo aipamena ere datorren asterako uzten dudun bezala. Barka, Antton, baina bi gizon patxaratsu eta filosofoa haiz, eta ulertuko dituk noski hiru aipametik hasita atera zaitzidan elukubrazio guztiok. Baina, datorren asterako utzi gabe, gauza hau gutxienez esan nahi gake: estimatzen diat hira diskoak, ona eta sakona dela uste diat.

XABIER LETE

JOSE ZINKUNEGIBEN
OPTIKA DONOSTIAN

URTEETAN LANEAN OHITUA


Hernani, 4



DONOSTIA

DISKOAK

DISKO SAIL BERRIA



Bertsoak, oraingo honetan diskotan bilduak datoz eta aspaldiko partez etorri gainera. Izan ere, sei zazpi urte bada gutxienez —Juan Mari Lekuonak zuzendutako hartaz ari naiz— ez dugula era honetako diskorik eskuratu ahal izan. Orain berriki egin den Valverde, Lete eta Lekuona hirukoaren doblea, arrazoiak bistan direlarik, aparte jartzen dut zalantzarik gabe.

Xalbador, Mattin eta Enbeitarrak, entzute handiko hiru izen. Lehenengo biak dakigun bezala, elkarrekin ibiliak ditugu urtetan geure inguruko hainbat teatro eta plazetan barru kantari. Mattiniek ez dio herriko jendeaia gai sakonik itsatsi nahi izan, ez eta filosofia partikularrik eskaini ere. Denok eza gutzen dizkiogun giza itxura pottolo, begi argi eta keinu "maltzur" bizi batez ailegatu zaigu beti mugaz haruntzako Ahetze bere sorterritik. Disko honetan gai hauek erabiltzen ditu batipat: umoretsuak —bakarrik nahiz ofizio jarritakoan Xalbador lagun duela— eta herriko gaiak bestetik.

Xalbadorrek lehengo bertso zahar eder bi dakar berriro, eta hortik aparte «Errexil» zenaren oromeneko luze hunkigarri batzuk eta berak kontatzen digun bezala, han-hemenka jaso eta bildu-

takoak. Jaialdi, festa eta halakoetan.

Enbeitatarrek bi disko egin dituzte. Bata Kepa Enbeita, sona handiko «Urretxindorra», gerraondoa hil zena eta euskara eta abertzaletasuna mila bider kantatu eta goralditu zutena. Ondoren eta beste bigarren disko luze batez Balendin eta Abel Enbeitak aita-semeak lehen aldean eta bestean berri, Jon Enbeitaren jarduna, aitoren zenbait bertso, orkestra doinuak boteaz.


Dudarik gabe, oso sail interesgarria burutu daiteke hastapenak nolakoak izan diren ikusiz gero, batipat. Herri-Gogoa, donostiar editoria-lak, bertsoaritzari soilik eskainia izan den bilduma orokor bat egin nahi omen du. Arrakasturik handiena opa diegu Xalbadorrek bere adiskide Mattini egotzen dizkion aitormen larriak egia bihurtu daitezkeen:

Koplariak metaka ziren lehenago, bihi bat ere ez da sortzen gehiago; gauza hori ikusiz gogotetan nago, aintzina joanago eta tristeago pertsulari-arraza gutan den akabo.

HOSTOA



Donosti-Aurrerki-Kutxa



EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikale
Ongarri ta aborak
Beler Zuloak
Erosi edo berritzeke diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelagaiko Perira Joan etorriak


Baserriaren alde

Duela sei urteko asmoa KRISTAU BIDEA

Holandar katekima euskaraz

Azaroaren 28an, Bilbo «Galería del Libro» liburudendan, JAKIN taldeak Kristau Bidea deitu liburu berria aurkeztu zuen.

Dionisio Amundarain, Paulo Agirrebaltzategi, Joseba Intxausti eta Jose Antonio Aduriz laukoteak osatu zuen aurkezpenean, itzulpen lan eta liburua moldatzean izan diren zailtasun eta gainerako gorabeherak, elkarriketa gisa, hainbat alderdi desberdinez, agertaraziz.



Amundarain, Agirrebaltzategi, Intxausti, Aduriz

ASPALDIKO ASMOA

Holandar Katekimak egundoko ohiartzuna izan zuen 1968 eta 1969 urteetan, mendebaleko kristau munduan behintzat, eta erlijio gaiez kezkatutik ari zirenen artean gehienbat.

Arrakastarik ezin hobe izan zuen, eta hainbat hizkuntzako itzulpenak berehala zabaldu ziren han hemenka. Donostiako liburutegi bakar batean gaztelaniazko itzulpenaren mila ale saldu ziren.

Saso haretan sortu zen JAKIN Taldearen barruan euskaraz ere itzultzeko asmoa, eta duela sei urte edo elkin zioten lanari.

LANAREN METODOLOGIA

Lehen lehenik, liburu osoa itzul zezaten eskatu zitzaion hamar bat laguni. Oinarritzko material horrekin, Dionisio Amundarain, Paulo Agirrebaltzategi eta Jose Antonio Aduriz hizkuntzaren finkatzeaz arduratu ziren. Lehen itzulpena frantses eta gaztelaniazko bertsioetatik egin zen, eta ondoko finkatzea, berri, aleman eta ingelesezkoekin gonbaratuz, ez bait zen artean inor holandar zekienik.

Liburua nolabait finkatu ondoren, Lapurd, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbati liburua irakur zezan eman zitzaion, hitz edota era ezezagunenak euskalki bakoitzean nola argiago jar zitezkeen ikusiz.

Euskalkietako ordezkariak bidaltzeko erantzunak fitxetan bildu, behar hainako aldaketak originalean egin, eta gainerakoak orrialde bakoitzarenpean eraskin bezala ezarri, tokian tokiko irakurleari ulerterrazago dakion.

LANAREN ZAILTASUNA

Edozein testu moderno euskaraz itzultzea berez da zail, eta inoliz itzulpen lanetan zerbait aritu denak erraz uler dezake. Zailtasuna hainbat eratako dateke, baina azken batean, filologi nahiz komunikabide problema izan, zailtasuna euskararen normalizazio ezaren ondorio baino ez da.

Hainbatek esan dezake, euskaraz ezer landurik badago erlijio gaiak direla eta ez beste. Hala ere, kontutan hartzekoa da, orain arteko dotrina hautzaro mailakoak izan diren, Axular edota Tartasen hiztegi teknikoa guztiz mugatua dela, eta orain planteatzen dena, ordea, goi mailako teologia dela.

Holandar kristau-bidea ez dorkiguri nolabaiteko «trascendentalismo» batengandik, eta ezta Jainkoa edota Hirutasun Sanduarengandik ere. Holandar dotrina hau gaurko kultura orokorrean barrena murgildurik dugu, marxismoaren zein hindulismoaren eta beste hainbaten alipamenak sarri asko azaltzen direlarik.

Dena den, zenbait zailtasun zehatz alpatzekotan, hiztegi batu eza, hitz berriak sortu beharra, joserak, esaldi luzeak (azken urteotako garbizelekeriak mugatu dituen antziznak literatur errekursoak kontutan hartuz gero) dirateke adiarazgarrienak, eta, hitz batez, galari erabat atxiki beharra, iheska ihardun gabe eta jatoriasunik gaitzeka.

ERASKINAK

JAKINek taxutu eta argitara eman duen holandar katekimaren itzulpen hau hainbat eraskinez osatua dator.

Aldiz aurretik, orain arte argitaratu eman diren «Kristau Ikasbide» guztien berri ematen da, Rementeriak egina. Historian zehar Euskal Herriak ezagutu ahal izan dituen dotrina mota denak azalduz, bai informazio soilararen aldetik, eta baita —zergatik ez?— orain arte herriak izan —jasan?— duen erlijio hazkuntza nabarmenizeagatik.

Holandar katekimaren beraren ondotik, «Kardinal Batzordeak adiarazi eta aginduriko bideel jarraituz aldatu eta erantsirik zenbait zati» ere sartzen da liburu honetan. Hainbat protesta eta eztabaidari erantzun bat eman nahi asmoz Erroman burutu zen apendiz hau ez da beste inongo itzulpenetan kontutan hartu.

Azkenik, Hiztegia, Galen Aurkibidea eta Aurkibide Xheha direla-koek osatzen dute obra guztia.

ESKAINITZA

JAKINek 3.000 aleetako argitarapena atertu du. Euskal publikazioetan ohi den baino gehixeago. Erlijio mailan zein euskara batua finkatzean lan interesgarri bat egin ahal izan duelakoan dago.

Biak dirateke gaurko Euskal Herriko Elizak planteaturik dituen arazo larriak, hots, Herriarengana egungo kristau mezu batez hurbildu, eta Herri horrenganako komunikabide tresna bateratu bat lortu.

ARANBERRI

ARTE KRONIKA

MADRILEKO
«ARTE CONTEMPORANEO»
MUSEOA

Esan izan dugu, inoiz museoa, berez, herriarena eta herriarentzako erakunde bat dela. Peninsulan, azken urteetan izan den politikak besterik adiarazten duen arren. Hala ageri da Madrilén ireki berria den «museo de Arte Contemporaneo» deritzan horretan eta, gainera, «Español» erantsirik.

Bost urtez egon da museo hau hertsirik, zenbait aldiz aldatu ditu zuzendariak eta, ia urteakabean, «Uztailaren 18ko inaugurazio ofizialen artean» ireki berri dute. Politik arazoek izan ezik, ez dezake inork zuri horrenbeste burugabekeria.

Zenbait agintari, museo horretan artista «gorrien» lanak erakustearan aurkakoa zen, eta hauen artean go-gorrena, Carrera Blanco zen. «Gorriak», noski, mundu osoan ezagunak diren Picasso, Miró, Dalí, Tapiés, Txillida eta horrelakoak ziren. Hauetxez dira, hain zuzen, nekezunik sartu diren izenak; gutien agertzen direnak dituzte.

Gauetik goizera, Complutense deritzan unibertsitateko «campus» barruan ireki ditu bere ateak museo honek, Bellas Artes Eskola eta Velazquezetxe inguruan. Eta ireki ere, Madril osoa Santanderrén uda goiztzen ari delarik ireki diti. Artistak, kritikak, poetak eta idazleak oporretan direnean, inauguratu museoa da. Azpikiok bikaina.

Ez da, ordea, hori izan dena. Artista eta intelektual askok zuzendu die protesta bat agintariei «bai edizioa egitean bai museorean egituraztean erabili diren bide eta metodo apetzako eta bereizkeriengatik». Gure artistik alorrean —autoritarismo eta agindua guztien aurrean ere— bada mundu osoan ezaguna den artistarik, halere Madrilék, bere herrikerlari jarraiki, askatze eta aurerratzeko asmo oro moztzen dihardu (futbolearen ezik).

Asko mintzatu izan da eta mintzatzeko da eta mintzatzeko ere museo hontaz, baldin gauzak aldatzen ez badira.

FUNDACIO JOAN MIRO
ET CENTRE D'ESTUDIS
D'ART CONTEMPORANI
(C.E.A.C.)


Madriléko aldrebeskeria hori baino aste batzuk lehentxeago, Miróren adiskide eta miresle zenbait, «fundazio» honen inaugurazioan izan ginen Barcelonan.

C.E.A.C. ez da elkarriketa, eta Joan Miró, eskuzabalez, utzi duen obraren erakustetarako tokia soilik, egungo artearen estudio eta berriemateko tokia ere badateke. Musika, teatroa, zinema, video, poesia, pintura, eskultura, grabatua eta horrelakoak, arteek bultzatu izan nahi dute herri hontako jendea heziketa eta estia librearen alorrean batipat. Eta, Le Corbusier-en lankide den Josep Lluís Sert arkitekto arazionalistak egina da. Ordina, neurria eta argia dira etxe horretan nagusi eta hori guztia katalan herriko tankera tradizionalaz egina. Bazter orotatik zaio sartzen argi mediterraneo. Erakusketa aretoak, 200 eserlekuko auditorium bat, 18.000 aleentzako biblioteka, atsedeen tokiak, eta batzokiak bai barruan bai kanpoan eguratsen ikuskizunak izateko tokiak, horra zerez dagoen etxe hori osatua. Ikustekoa duzu. Sarrean dago ezarria Madriléko Ayuntaméntuak baztertu zuen Txillidaren eskultura.


Hona etxe horren helbidea: Fun-



Narkis de Balenciaga: Autorretratoa. Bilbao



Fundacio Joan Miró. Barcelona. Josep Lluís Sert: arkitektoa



Gipuzkoako eliz-barrutiko katalogoa egiten ari da



Ardia: Henry Moore. Barcelona

dació Joan Miró. Parc de Montjuïc. Barcelona (4).

NARKIS DE BALENZIAGARI
ERAKUSKETA-OMENALDIA
(1905-1935)

Arronako pintatzaile Narkis de Balenziaga, Mexicon hil zela, 40 urte dira, Donostiako Galeria Estudio deritzanak, erakusketa bat egina du aurtengo udan, gure oroitzapenean egotea merezi duen euskal artista honen 20 óleo eta 3 marrazki emanaz.

Egia esateko, erakutsiriko obretan denetarik bazen. Zuloagaren eraginaz eginak, «naif» eraoko eta bere barnetik irtenkoak. Hauen artetik

bodegoi zoragarri batzuk bereiz daitezke, ia «fauvistak» dira, kolorez beteak, argiz eta sensualitatez; horietan iritsi zuen artistak bere ikuspegi berezia.

Narkis de Balenziagaren monografia on bat merezi du. Gure eskerrik beroenak Julian Ugarteri, gerra aurreko euskal pinturaren «naif» ekspresionistarik hoberenetako hau, jendea lehen aldiz erakutsi diolako.

HENRY MOORE BARCELONAN

Henry Moore Ingalaterran jaio zen, 1898. Plastikari eta, batez ere, eskulturan tokirik gorenetakoa du eskultore honek XX. mendean. Haren obra doi-dola erakutsi izan da Espainian, horregatik du halako garrantzia Barcelonako EUDE galeriako erakusketan.

Erakusketa honetan sail bi ditugu. Bata «black drawing» deritzana, paisajiek eta irudiak ilunbetatik argitara sortzen direlarik. Bestean lineak eta perspektibak irudia bere inguruan ezartzen dutelarik. Biak paisajean baturik daude, paisaje, horrek in bat egiten direla.

Haren marrazkiak, bestalde, poesiaz eta dramatismoz beterik dituzu. Ilun eta argiaren misterioa ikusten da. Meatzetan lanean ari diren edotea bildurik dauden gizon hunkigarriak, eskeko bizitza beroa eta, baitipat, ama: horra artistak, eskultoreak amestu eta zertu dituen gaiak. Eta zer diostazue hark margotutako ardiez? Ia-ia XX. mende hontako gizonen erretrato, dira. Ez ahal duzue zuek bat egiten horiekin?

GIPUZKOAKO ARTE SAKRATUAAREN KATALOGOA

Bada lau uda, D. Jazinto Argaia apezpikuaren mandatuz Gipuzkoako arte sakratuaren katalogo-zerrenda bat egiten ari naizela.

Urterik urte, 1971an hasirik, Irun-Errenteriko arziprestazgoetan lehenik eta Donostian (3 arziprestazgo) gero, Hernanin, Andoainen eta, aurtengo udan, Don Juan Martin Zurirain arziprestearen laguntza ederraz, Tolosa inguruan aritu naiz.

Lan latz eta astuna dela, esan leharrik ez dago. Baina, orobat, beharrezkoa dela ere. Begiratu hutsaz arte balioa duen obra asko dago Gipuzkoan. Hala ematen digu lan isil eta poliki doan honek (halako batez argitaratuko da). Azkarregi ibiltzek ez garamatza inora; denek ahalaginak ematen ari dira beren trituitak. Agintari, bikario jaun eta jakintsuak ari zaizkigu lan honetan laguntzen. Euskal fededunek, arte lan horietan eman eta utzi dizkigute beren erlijio eta sinismen bizitzeko lan horiek denonak ditugu orain. Ez du inork eskubiderik saltzeko ez erosteko. Denon egitekoa da arte lan horien kontserbatzea, Gure kultur mailak gure gizabideak horixe eskatzen digu: seriotasun eta erantzukin bat gal ez daitezke. Zenbait apaiz, bere herriaren eta honen interesen artzain denez, hasia da oharitzen zer duen bere eskutan: gure herriaren kultur-espiritual ondasuna, oinordeko. Kritika zoro eta nahigabe ugari izan dituen areen, horien lan apaiz eta oldarreko gure errespoto eta txaloa merezi dituzte.

EDORTA KORTADI



YOGUR

GURELESA
GOGOZKOENA



Juan Bautista Eguzkizaren Omenez

Bizkaiko Lemoan Euskaltzaindiaren batzarrea

1875garrengo azaroaren 28an jaio zen Juan Bautista Eguzkitza, Bizkaiko Lemoan.

Ehunurtehurten hau ospatzera bildu ginen azaroaren 30ean Lemoan. Pedro Aristegi, Bizkaiko Diputazioaren Lehendakari jaunaren, Juan Llona Besaras, Lemoako Elizateko Alikate jaunaren eta Aita Luis Villasante, Euskaltzainburo jaunaren deia genuen.



Arantza Haranburu irakasle agiria jasotzen

MEZA NAGUSIA

Meza Nagusia eman zitzaion hasera omenaldiari. Elizabete jende eta aldea bete apaiz elkar meza ematen. Bilboko go-kaia, bere ordez, bidali zuen aita Martzel izan zen eliz-batzarre hartako buru, bertako erre-tore jauna ezkerrean eta aita Villasante euskaltzainburua eskuinean zutuelarik. Karmelo Etxenagusia, Lino Akesolo, Joxe Mari Aranalde eta beste doze-nerdi bat apaiz gehiago alda-rean.

D. Franzisko Arraibi mixiolari ospetsuak egin zuen hitzaldia. Kanpo aldetik ibili baldin bada ere, Arratiako seme honek ez du ahanzi euskararik. Eguzkitza-ren elizgizentasuna goraiatu zuen baitat. Harako esaldi hura berrizatu zigan entzulei: «beti apaiz eta apaiz bakarrik». Hala izan omen zen Eguzkitza.

Esaldi honekin, zehatz, zer esan nahi den ez dakigu. Munduko arazoez kezkatzen ez zen aingerutxo bat zela? Beti eguterran egoten zela, beti eguzkiak berotzen zuen alderdian? Izan ere, ospelekoa, mikatza eta mina izan ohi da.

Bazirudien, bada, Eguzkitza gaurko elizgizonentzat eredu izan zitekeen gizona zela. Garai hartako elizgizon batek zituen ueste eta iritziekin, noski, baina herriaz eta gizarte arazoez kezkatutako gizona genuen Eguzkitza. Emakume Euskoarrak eta Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak deitu lanak ditugu lekuko. Euskara lantzen zuen elizgizona «apaiz bakarrik» zenik ez dirudi, «apaiz bakarrik» esaldiaren izenean, euskara ikas-tea ere, debekatua izan bait da.

Kristaigintza, elizgintza eta mundugintza eta herrigintza elkarri lotzen jakin zuen elizgizona, gaurko eztabaida askoren argigarri gerta zitekeen. Baina hiz-lariak ez zuen korapilo hori as-katzeko argibiderik eman.

OROITARRIA

Meza ondoan, Eguzkitzaren oroitzapenez eraiki den oroitar-ria, agertu zen. Elizaurrean den zabalunean ipini da.

Egun guztian izan zen egural-di petrala. Une horretan, ordea, ez zen giro izan. Bazen euria eta bisutsa. Uzkur zen jendea.

A. Onaindiaren hitz batuez agertu zen estalirik zen oroita-

ria. Lemoako herrian ez zela honelako beste oroitarrik esan zuen, eta honelako oroitarriak merezi dituen semeak sortu be-har zituela Lemoak.

Ahal genuen azkarren aterpe-ra jo genuen. Eskola berrietara hurbildu ginen.

BATZARREA

Eguerdiko 12etan, Euskaltzain-diak bere batzarre irekia egin zuen, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioen ordezkariak eta Le-moako alkatea mahaiburuan zi-tuelarik.

Luis Villasante, Haritxelhar, Lafitte, San Martin, Erkiaga, Iri-goien, Manterola, Lizundia, Ona-india, Gereño, Kintana, Akesolo, Zeleta, Berriotxo, Etxenagusia, Atxaga, Retolaza, Aranalde euskaltzainak eta abar han ikusi ge-nituen.

Jende asko bildu zen batza-rrean, jende gaztea batez ere. Besteak beste, han ikusi genuen Amatiño geure lankidea ere atzera-aurrer, lan eta lan.

Unzeta, Bizkaiko Diputazioaren lehendakariaren ordezkoiak egin zigan ongi-etorria. Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiteko prest zirela adierazi zi-gun. Ez genuen aspaldiko urte-tan honelakorik entzun izan le-ku hoietatik. Zerbait egosten ari da, nonbait, bazterretan.

Luis Villasante, euskaltzainbu-ruak, egin zigan Euskaltzaindia-ren agurra. Zertara bildu ginen eta Euskaltzaindia zer zen agra-tu zuen hitz bitan. Euskararen

eta euskal kulturaren aldeko la-guntza eskatu zien agintariei. Es-koletan ere euskara sar dadin, atea zabaltzeko eskatu zien. Euskarak lekuri ez duen tokie-tan leku izan dezala ere eska-tzen du, nonbait, aita Luis Vi-lasantek. Euskararik ez dakiten erdaldunak ere gogoan ditu, nos-ki. Ez aharu diote, bada, hori gaitzesten duten euskaldunek be-rek ere beren aldizkarian erdara sartu?

Dena den, agintariak aurrean diren guztian, zabal diezakiela euskarari eskoletako atea eska-tuz ari da.

Ondoren, Eusebio Erkiaga eus-kaltzainak hitzegin zuen. «Juan Bautista Eguzkitzaren bizitza, idaz eta hizkuntz lanak» zuen gaia.

Gasteizko apaizgaitegian egin zituen Eguzkitzak apaiz istu-dioak. 1899garrenean egin zen apaiz. Lekeitioko latindegian ira-kasle zen bitartean lizentziatura atera zuen.

1915garrenean Garbitokiko ari-maen illa argitaratu zuen. 1919ga-rrenean Andra Mariaren Loreta-ko illa.

1919garrengo irailaren 21ean Euskaltzaindian sartu zen.

1930garrenean Emakume Eus-koarrak deitu lanagatik «Kiriki-ño» saria irabazi zuen.

1933garrenean Balzolaen «Ar-gi Donea» ipini zuen bizkaieraz.


1935garrenean Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arte gora-berak liburua argitaratu zuen.

1939garrengo abuztuaren 12an hil zen Lemoan, euskararen alde jo eta ke lanean ihardun zen gu-re Eguzkitza, Orixe dioenez, «orainarte izan dogun euskal idazlerik bikaltiena» izan zena.

Azkenik, aita Xanti Onaindia mintzatu zitzaigun. Sermolari eta eliz-idazle alderdia aztertu zuen.

«Euskaldun fededun» esatera onartuz, fedea galtzen duenak euskara ere laster baztertuko duela, esatera iritsi zen gure aita Onaindia. Euskara galtzen duenak fedea ere laster galduko omen du. Euskara aspaldi galdu zuten arabarrek eta Herriberako nafarrek, fedeari sendo eusten diotela, ba dirudi bai Ez dirudi, bada, «Aita Santu, Gotzai eta apaiz gorriak Moskura» oihuka dabilzan fedea faltarik dute-nik! Eta ez dirudi, bestalde, eus-kara asko dakitenik ere!

Euskaldunok, fededun ala fe-degabe, euskaldun izateko esku-



Oroitarria agertzen Unzeta eta Llona jaunak

bidea eta eginkizuna dugu. Eus-karak asko zor dio Elizari ez-pairik gabe. Zor haundiagoa izan ziezakioken. Fededun eta elizgi-zion guztiak ez bait dira eus-kaldun.

Dena den, aita Onaindik, Eguzkitzaren sermolari eta eliz-idazle lanak goraiatu zituen.

Erkiaga eta Onaindia, bat be-zala bestia, luzegi ihardun zi-ren. Honelako batzarre irekietan laburrago mintzatu beharko li-zateke jenderik ez aspertze-arren. Gehiago jakin nahi lukee-nak, EUSKARA aldizkarian izan-go luke hitzaldi osoa irakurtze-ko eta aztertze aukera.

Euskara batuaz Eguzkitzak zi-tuen kezka eta iritziak ere ge-hiago azpimarkatu beharko zira-teskeen, noski. Gaurregun bizi bi-zi den gaia dugu.

Eguzkitzak fededun eta idazle bezala gaurko egunerako duen mezua, gehiago nabarmendu be-har zen, ene uestez.

IRAKASLE TITULUAK

Azkenik, irakasle tituluak a-giriak eman ziren. Luis Villasan-tek behar beharrezko ohar bat egin zuen, agiriok eman aurre-tik. Euskal irakasle tituloak ez daitezke nolanahi eman. Euskal Herri osoko erakunde bakarra Euskaltzaindia dugu. Bero-ni eman zitoten tituluak emateko eskubide hau garai bateko Di-putazioek, eta, gure egoera hau normaltzen ez den bitartean, Euskaltzaindiaren esku izan be-har euskal tituluak emate hau.

Lau urte da euskal irakasle ti-tuluak ematen ari dela. Aurre-nekoak, Elgoibarren eman zi-tuen, Urruzunoren omenaldiko-an. Bigarregoz, Lekeition, Az-kuarri egin zitzaion omenaldi-koan. Hirugarregoz, Azkoitian, Intxaurtiren jauregian: hemen jaso zuen Lemoako erretoeak irakasle agiria. Laugarregoz, Le-moan.

Larehunek jaso dute irakasle agiria lau urte hauetan. 164ek azkeneko honetan. Hoietatik 29k erdi mailakoa. Eta hauetatik 11ak egin ditu lan monografiak. Arrasaten, Iruinean, Iruen eta Segoviako gartzelan izan ziren azterketak.

Etsamina hauetara andereño-rik ez dela agertu ohi, behin eta berriz esan da. Oraingoan ezin daiteke honelakorik esan. Irakas-le agiria jasotzen, neskatza asko izan zen oraingoan; gizonetakoak baino gehiago. Eta gizonetakoent-zat behintzat, fededun ala fede-gabe, honelako neskatza eder eta lirainek asko edertzen dute honelako batzarrea.

Arrakasta haundia dute irakas-le agiri hauek. Ikasleotarako

eta gau-eskoletarako beharrez-koak gertatzen ari dira. Ikasle-taren eta alfabetatze lanari lo-tua da irakasle agiri hauen arra-kasta.

Honetaz ari garenez gero, esan dezagun, alfabetatzen lanetara-ko dirua biltzearen GALARRE-TAN, azaroaren 29an, egin zen bertso jaialdian, ikaragarriko jendetza izan zela. Ez dugu, Ga-larretan, honelako jendetzarik behin ere ikusi. «Lau mila? Bost mila?» idazten zuen norbaitek. Beste hartan ere «chundaka mi-la» bildu omen ziren.

Berpiztutako gorputzek ez omen dute lekuri behar. Gala-rretan bederen berpiztu gabeak ginen. 1.500 sarrera saldu omen ziren. Hortik lau edo bost mi-latera koxka haundia da.

1.500 bada zerbait. Gipuzkoako bazter guztietatik etorritako jen-dea ikusten zen. Alfabetatzeak bada, beraz, arrakasta.

Irakasle agiriak ez dira emate aldera ematen, lanerako ematen dira. Eta jendea lanean ari da.

Haritxelhar euskaltzain buru-ordekoaren hitz laburrez amaitu zen goizeko batzarrea. «Hizkun-taz bat, kulturaz bat, bihotzez bat» ginela, hango eta hemengo, esan zigen onenki.

Euskaldunon ohiutari jarrai-ki, bazkariak amaitu genuen Le-moako batzarrea. Bazkaria, anal-tasun jatorrean egin, Bizkaiko Diputazioaren lehendakari-orde-koaren «Gora Euskal Herria» oi-huz bukatu zen. Inoiz bezalako bazkaria egin izan bagenu, zer ez ote genuen esangol!

Baina Lemoako batzarrean ez ziren hitz hutsak izan. Han, ikas-tola bat eraiki dadin, lurra eta dirua eman ditu lemoar batek.

IRASTORTZA

ZERUKO ARGIA

Hartzeari zabarkeriaz
utu bazenion

Has zaitetz berriro har-
tzen.



Elgezabal monja agiria jasotzen

Gandhi eta on Kosme



Jok.—Bapo, On Kosme, beraz zuk, gure Elizetan, Gandhi Indutarrren Irudia, Santua dela aitortuaz, jarriko zenuke?

On Kos.—Gure Elizetan korupera zeramatzaitek santu-irudiak. San Antoniok iraungo dik, bai, ogeita amar urtetik gorako neskatxak «eskupekoarekin» senar gai billa doazen bitartean... Ainbeste irudien artean, Kristo izkutatuta bezela galditzen uen nunbait. Irudi bazterte onek gure Kristoganako maitasun eta joera geituko aal zian noski.

Jok.—Gu, Elizetatik Santu-irudiak kentzen eta Aita Santua, urte Santua delata, santu berriak egiten...

On Kos.—Gu bezalako ezur eta mamizkoak, santu izan daitezkeela, eta beren bizitzaz ongi oartzu, guk ere oiu egitea dugula: «Auek egin dutena, zergatik, guk ez egin?». Ori duk nerezat interesgarri santuen bizitzan. Elizako santuen artean, Elizako semea izan ez den gizon edo emakume bat, santu aundi bat dela aitortu izan balu Elizaren izenean gure Aita Santuak, munduarentzat zirrara eta inpresio aundiko gauza izango zela zerizkiot.

Jok.—Erroman, gaur egiten den jai arrigarriarekin, millaka jendez Batikanoa beteta, arraza guzietako kardinal eta gotzalek Aita Santua inguratuta, protestante bat, esate baterako, Lutero King, indutarr bat, Indiako sortu duen gizonik aundinetako GANDHI, mahomatar bat, bonzoren bat, itz batean, katolikoa ez den norbait gure Elizak «KANONIZATU...»? Ameslari aundi bat zara edo goiko ganbaratik jota zaude, On Kosme.

On Kos.—Bazekiat, bai, ori gertatu bitartean, amaika dantza gozo egingo dituzela arkakusok zakurren izterretan... Nola ez bada? Eliz barneko santuak ere, azkenengo gizaldietan beintzat, beti etxe eta arraza berdiñekoak dituk eta...

Jok.—Etxe berdiñetik? Arraza beretik Santuak?

On Kos.—Kintin, morroi gizaajoari, gertatzen zitzaiona, santu egite onetan ere gertatzen duk. Bazkaitarako arrautza tomatearekin ematen zitioen etxeokandreak, eta afaitarako, aldatzarren, arrautza tomatearekin eman bearrean, tomateak arrautzarekin eman oi zioan. Frailleak eta mojak, mojak eta frailleak «Santu» egiten dizkiate. Apalzen bat noiz edo noiz? Gure arraza ontan, asko ere ez duk egongo ta... «Ofizialki» «Santu» egiten dituztenak, moja eta frailleak direla ikusita, esan zitekek, alderdi ortatik beintzat, gure Eliza «fraille eta mojen erria dela eta ez kristau sinismendunena. Eskerrak, aspaldidanik, gure baserritarrek baduten Isidro Santua.

Jok.—«Ofizialki» norbait «Santu» egitea diruz asko kosta oi den gauza da. Bere bizitza zuei-zeatz auzertu, azkenengo puntaraino bere idazki eta gertakizun guzietik begiratu zorrotz eta luzea eman, berak eginiakako gertakizun batzuek mirari diren ala, ez ikusi, eta abar... Urteak eta diru antz dira bearrekoak gauzak guzietarako.

On Kos.—Lurreko bizitzan, santu egitea gauza zaila dela, baiña ez duk nunbait doministiku luze bat egitea: nunbait Ofizialki «Santu» dela aitortzea. Fraille eta mojak, bakoitzak bere zelakoa izanik, erraxago zaiek nunbait beren otolitzekin, Santu eta santa egin nai dutenengandik, Elizak eskatzen dituen mirariak iristea eta gastutarako bear diren eskupekoak jasotzea.

Jok.—Baiña, On Kosme, zer zaigu zuri eta neri arazo onegatik? Fraille eta mojak «Ofizialki» egiten dituztela «Santu»? Eta zer axola zaigu? Egiazki eta benetan Kristogan sinetsi izan dutenak, zeruan daudela badakigu.

On Kos.—Axola gutxi neri; baiña fraille-mojak bakarrik, aparteko santutasunaz Elizak markatzen dituenen, baziurdik Ezpiritu Santuaren indarra konbentu barnetan mugatuta uzten dugula. Orregatik fraille eta moja artean, nekazariren bat, arrantzalaren bat, emakume ezkondu bat, gazte bat edo beste, «Santu» egiten dituztela ikusi nai niake; naiz eta orretarako orain arteko santu egiteko erak aldatu bearrekoak izan.

Jok.—Orain ere gure berriktarekin, gaieren aria moztu zaigu. Gandhirekin asi gara eta Gandhirekin amaitu bear dugu. Gandhi, kristau izan gabe, bere bizitza arrigarrian, aparteko santutasunez jantzia zenez geroz, atsegin litzaizukeela Eliz Katolikoak «Santu» dela aitortu eta Aita Santuak «Kanonizatzera», zenion. Zer delata ordea zure nai ori?

On Kos.—Kristo gizon guzien Salbatzaile duk; Kristoren salbazio ori lanean ari duk munduan zear erlijio eta arraza guzietan. Kristok Eliz barruan bizi direnak bakarrik ez dizkiz salbatuko, baita Elizatik kanpoan arkitzen den gizatalde aundia ere; batpat, beren erruz arkitzen ez direnak eta beren barne kontzientziak eskatzen dien bidea badaramate. Gandhi edo kristau ez den bat, Elizak ofizialki «Santu» egiten badu, Kristo mundu guziko Salbatzaile dela obekiago agertuko luke; Kristo izatea erakunde eta instituzio guzien gainetik dagoela nabarmenduko uke; Elizak, bere pentsasera zabal-zabal eginiik, bere barnean ez diren seme guzietz besarkatzeko gal dela obekiago azalduta geldituko uke; Elizaren guzietzko salba-nai eta katolikotasuna garbiago ikusi aal izango uke.

Jok.—Orduan, Santuen litanian pozkiro jarriko zenuke: Indutarren askatzaila Gandhi Santua, otolitz gure alde.

On Kos.—Litanian Santu Ofizialak zeudek, Jokin. Ire bakar-alديو otolitzetan egin ezak lasai. Nik, aspaldidanik, nere amona gajoari, noizbeinka benedik, otol egin oi zioat: AMONA BIRJINASI, OTOI GURE ALDE.

AROSTEGIK

ELIZAREN BERRI

KRISTAU IKASBIDEA EUSKAL HERRIAN

«Elizalde»k jaiki erazi du erbia berriketan (Z.A. 1975-XI-23, 9. or.) Jakinek publikaturiko Kristau Bidea dela eta: «Itzulpenez baliatu behar dugu, noski, baina ahal dugularik euskaraz sortu eta burutu behar ditugu liburuak».

Horra. Eta gauza bera ateratzen ahal dugu «Informations Catholiques Internationales» delakoak (15-XI-75) dakarren titulu hontatik: «Eliza bakar batek aldarrika ote lezake fedea kultura diferenteren?».

Horra gakoa, Gure artean, aspaldi ontan, Holandako Dotrina ezezik, beste hamaika itzulpen egin dugu erlijio testu aldetik. «Gipuzkoako Ikastolen Elkarte Batza» edo Federazioko eraginik, hor dugu, aurtan, Kristau Ikasbide saila. Eta zorionez, euskara batuan.

Baina, begira. Euskara batua, arazo formal bat baino zerbaite gehiago delakoan gaude. Ez dakit zertaraino aurki lezakeen bere burua gipuzkotar haurrak, eta beste edozein euskal herrialdeko ere, testu horietan.

Frantses apezpikuek, egin berria duten Lurdesko batzarre nagusitik, honela mintzo zaizkie guraso eta katekistek: «Metoduak, egoera eta izatera berriek egokitu behar zaizkie... Premiazkoena izanik ere, liburuak ezin ordezkatzen ahal du hezilearen aitortpena, lekukotza... Fedea bizitzeko kondizioak aldatu egin dira».

Eta Etxegarai jaunak, konklusio gisa, honela dio: «Katekesiak, Kristo topatu ahal izateko zerbiztua baldin bada, bizitza bat bere denboran eta bere lekuan hartu behar du; horrela besarkatuko du giza izatearen abentura gutia... Fedearen mezuak hau eskatzen digu: har ditza giza gizonak dauden tokian eta diren bezala, eta ez, guk uste dugun tokian edota guk irudikatzen ditugun moduan».

Beraz, liburuak badu bere garrantzia, Laguntzaile izatea. Premiazkoena, ordea, fedearen berri norbaitek ematea da. Eta norbait hori, fedearen berria hartu nahi duela bezala, toki batean bizi da, garai berezi batean.

Eta hona itxuragabeko eta zentzurik gabeko gauza: Euskal Herriko katekista (teorian bederen) Euskal Herrian bizi dena da; fedearen berria hartu nahi duena, Euskal Herrian bizi da. Bizi da. Bizitze horrek badu bere esanahia. «Existiu» baino zerbaite gehiago esan nahi du. Baiña, hona. Eta hauxe da itxuragabekeria. Laguntzaile behar lukeen liburuak. Madrinen edo ez dakit non asmatua dela.

Hezketa bizia izango bada, haurraren sentimenduak biztu behar baldin baditu, haurra bere sentimenduetan ukitu behar baldin badu, haurrari bere bizia bera idarok, sujeritu, behar baldin badio, Jainkoa, Jesuskristo bere bizitzan lagun, liberatzaile... duela idarok behar baldin badio, zela sentimendu, zela bizitza idarok liezaloko Madrinen asmatutiko dotrina horrek?

Bistan da, euskal haurraren eta Madrinen buruturiko libro arrotzen artean egundoko desfasea agertuko dela. Halatan, ez da batere harritzeko gauza izango, ez haurrak, ez katekistak horrelako kristau ikasbide emateko interesik ez izatea. Bere bizia bizi nahi duenari ez bait daokio inolaz ere horrelako harriz batlaitea.

Izan ere, zel den egiteko horrelako kasoean? Erlijioa, fede bezala ez, baina asignatura bat bezala hartzea. Hirixe da egiteko guztia horrelako kondizioetan. Horixe.

Erabate bestalde dakusagu Bibliaren joera.

Leinu ibiltari, nomada, batzu Egipton kokatzen dira. Baina, astinaldi gogorra jasaiten du halen bizitzak.



Iraultza bat. Bizitzaz erabat aldatzen dute. Esklabatutik askatasunera igarotzen dira. Eta Astinaldi hortan, min-mineko esperientzia hau bizi dute: Jainkoak bere herria askatu egin du, salbatu.

Ez da hori maisuren batzuk proposaturiko erakaspena, Esperientzia da. Lehenik, bizitza da. Esperientzia. Gero dator bizitze horren, esperientzia horren esan beharra, aditzera eman beharra.

Israelek, ere, ordea, behin baino gehiagotan bizi izan du arrisku hau: erlijioa legeztatu eta aniklosatzekoa. Azkenekoa, herbestealdi ondoko judaismoa izango du.

Kristoren etorrerak, hain zuzen, bizitza bizia delako esperientzia hori haragi egin nahi izan du; ikusteko moduan agertu nahi izan du Jainkoa herriarekin ari dela ihardunengan liberazio lanean. «Jainkoa gurekin»: horixe izango da apostoluen, diszipuluen esperientzia.

Ez da lehenik magisterio bat, maitatza bat. Ez da lehenik erakapen bat. Bizitza bat da lehenik: Kristo Jesus bizi da diszipuluen artean.

Baina, bada beste puntutxo bat esperientzia horretaz, gaur egun gainera atera beharrekoa.

Mende honen lehen erdiko teologik molde batek, eta geroxagokoa ere, oso dotore, oso goxo, oso xarmant pintatu du «Jainkoa gurekin» delako hori. Batere tirabirarik gabeko maitasun bezala pintatu ere.

Maila hortakoa edo, dugu Holandako Dotrina, Orobat, katekistentzat zuzenki euskaratu berria den «Ibili, Jesuskin gabiltza» delakoa ere. Gure artean ditugun hoberentxoanek, noski.

Urrats bat gehiago emateko gaudela, ordea, geure artean. Geure herria bezalako zorian bizi diren zenbait lurraldetako maila iritsi nahi baldin badugu bederen. Kristorekin erlazioa, «zu eta ni» arteko baino zerbaite gehixeago da noski. «Zu» aldetik batetik, eta «ni», eta hau, eta hori, eta hura, eta bestea... beste-iki. Molde hontako harremanetan, al-paturiko goxotasun, dotoretasun eta xarmantetan hain ezti. Ez da hor, dena goxotasuna, dena ferekatze hutsa.

Alegia, urrats hauxe falta da: herria Jainkoak liberatzen baldin badu, herriaz baliaturik liberatzen duela jakinik bizitza. Eta hor tartean izan ohi den esperientzia «goxoa» bortizkeriaz beterikoa izan ohi dela.

ZERUKO ARGIA

Ordaindu gabe baduzu

Arren, ordain ezazu.


Hona bada. Donostiako Katekesi Idazkaritza ari da bere ahalegintxoak egiten. Laudagarria du azken aldian hontan egin duen pausoa. Baina ezin esan da, Federaziolari eskalnik dizkion Kristau Ikasbideak euskaldun haurrarentzat fede heziketarako laguntza handi-handirik gerta daitezkeenik.

Ez ote da gure artean katekista pedagogorik, bere fedea bizitza bizia agertzera ausar daitezkeenik?

Hortarako, alabaina, monopollo guztiak, nondinahikoak eta edonorenak ere, zillipurdikatu egin beharko lirateke.

Ea, bada.

AMUNSA



FAGOR
edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala

herrera

ASPALDIKO PARTEZ

—Batutzen astirik ez dugulako eta bestetan esan beharko genukeen gutzia esaterik ez dagoelako edo... egia da bolada honetan gure hutsunea nabari dela, baina ez gogo eta adonek falta izan zaigulako. Hemen gara berriro lanari ekiteko asmoz.

—Bada zenbait jende ere, basoerdiak hartuz aparte, lanean ari dena; herriko arazoetaz sekulan kezkatu eta arduratu ez den jendea, orain txoko, bazter eta saltsa guztietan gogo biziz eta amorrutaz sartu nahirik dabilena, gau ikastolan dela, oleritzaer saioetan, Saltekoan, hauzokideen elkartean... Ez dakigu direnekin denetara ailegatuko diren ala ez, edo-ia jende gehiago rekrutatu beharko duten ere. Baina beldur gara ez ari ote diren, bat-batean beren bizkar gainetan, zama handiegia eta gehiegizko lana hartzen.

ITZALA-KOEN BATZARRA

Duela hilabete eta erdi inguru ospatutako batzarrean elkarrekin, urtero egin ohi duen bezala, batzardea berriro zuen. Bost lagunek osatzen dute; herrietatik bik gutxienez batzorde zaharrekoak izan behar duten; era honetara aro berri honetara igarotako urtearekin etekin izan ez dezan.

—Elkarte hau, ez da ekintza handiegitan murgildu dena eta ez die ere hoiak bakarrik garrantziko lanetara esan eman, baina zenbaitetan izan den akitu eraginor eta zirkuituak apartekoak, ordea!

Batzorde berriari eta elkarrekin berari ere zori ona opa diegu, ez diezaiola lanari sekula utzi.

EREDU BIKAINA

Gau ikastola martxan da eta jendeak erantzun jatorria eman ez diotik ezin esan, baina honen berri zehaztagoa beste batean emanen dizuegu.

Gaur, gertakizun aipagarri bat, eta zenbait fabrikatoko langileek eraduratu hartu beharko luketena dakarkizuegu.

Hasiak bait dira "Ramón Vizcaíno"ko zenbait langile prestu, bi maila desberdinetan, euskara ikasten hasi eta alfabetatzen besteak, irakasle bertako beste langile bat dutelarik.

ETXETXUKOAK

hernani

MENDI GAINEN OHARRA

Hernanin egin behar ziren hitzaldiak berri eman genizuen, Esan bezala, hiru gizon ospetsu ziren etortzeko hitzaldiak ematera. Eskudero Rueda Jauna, Karlos Santamaria Jauna eta Jose Maria Setien Gotzaina hain zuzen.

Baina, hitzaldi hauek atzeratu behar izan gaituen gara. Gaitik etorri zaigun agindua da.

Dena den, ez dugu aste atzeratze hau erabatekoa izango denik eta daitzekena da aipatutako hitzaldiak datorren urteko urtarilean etortzea.

Baina jakina, garaia etortzen denean jakinaren gainean jarriko zaiteztegu.

MENDIZALEEN ASTEA

Aste polita antolatu dute Mendizaleen Astea Mendiz-Mendi Elkartek, mendizaleentzat eta mendizale ez direnentzat. Hona hemen aukeratu duten egitaraua, Abenduaren 15ean hasi eta 21artekoa:

Astelena, 15.—7,30etan: Tximist taldeak Everesten atera zituen diapositibak agertuko ditu Aitor Antzokian.

Asteartea, 16.—7,30etan: "Euskal Herria argazki bidez". Patxi Irigoienek agertuko dizkigu diapositibak Udaletxean.

Asteazkena, 17.—7etan: "Navarra, cuatro estaciones" deritzan argazminiz edo pelikula Aitor Antzokian.

Osteguna, 18.—7,30etan: Josetxo

Pikabeak elurretan egiten den Eski-Diapositibak agertuko dizkigu Udaletxean.

Ostirala, 19.—7,30etan: Afrikan zehar ibili zirenean atera zituen diapositibak agertuko dizkigu, Hernaniko Martin Zabaletak, Udaletxean. Bertan Argazki-Ibilaldian parte hartu zutenentzat sariak zabalduko dira.

Larunbata, 20.—Umeen eguna. Argazminiz edo pelikula ezarriko dira eta txokolate jatea egingo da.

Igandea, 21.—Oñil mendian bide-erantz ageri bat ipiniko da eta eguerdian babarrun jatea.

Ongi betetako astea beraz.

GAZTE BI

durango

BILERA BATEN EHUN URTE BURUA

Durango Merinaldeak, bere nortasun berezia galdu zueneko azken bilera 100 urteak, aurtan betetzen dira.

Datorren hilaren 27an dira 100 urte, Gerediagako ermita aurrean, merinaldeko elizateetako ordezkariak azkenegoz batu zirena.

Batzar hori gogoratzeko, izpirituz berberaz eskualdean lanean diharduen Gerediaga Elkartek, bere urteko Bilera Orokorra toki berean egingo asmoa du, Abenduaren 27an.

LEGE BARNEKO GREBA

Esan digutenez, lege onartuta Espainian eraman den lehenengo greba Durango lantegi batean izan da.

Nahiz eta legea egin izan, ez dut uste ondorio hoberik aterako denik, langileen egoera larria ez baita aldatu. Zerbaitek behar bada?

Dena dela, hemen gauza bat ikusi ahal izango da: Sindikal Erakundearen bide meharrik, horrelako arazoak konpontzeko balioko duen ala ez. Eta bide batez, barnean ala kanpoan jokatu behar dela diotenen erizirik frogatzeko.

Zer deritzazu zuk?

HITZALDIK

Euskal kulturaz arduratzen den, Gerediaga Elkarteko, Kirikiño sailak antolatutako, hitzaldi sorta bat eratu da Durango.

Hitzaldiak, hilerio bat lau hilabete-tan, hizkuntza arazoari atxikiak dira eta Azarorako prestatua, egin da. Hitzaldiak hauek dira:

Azaroan: "Hizkuntzak (euskara, katalana, galegoa) Hezkuntza Lege barnean" Jose L. Lizundiak.

Abenduan: "Elebitasunak".

Urtarrillan: "Euskararen zergatia eta balorea, gaurko gizartearen".

Otsailan: "Kazetaritza euskaraz".

Hona hemen asmoak, ikusteko dau-de egingizak.

Lehen biak gaztelaniaz izango dira eta euskaraz beste biak. Denak Jesuiten ikastetxean, arratsalde, 8-etan.

HERRIAREN LEPOTIK

Neuk ere egingo nuke hainbat gauza eder.

Gure herriko kaleetan argi berriak jarri dizkigute. Tankera zaharraz jantzitako kriseluz horniturik, txukun eta distiratsua agertzen zaigu herria, eta argiak ere lehen zudenak baino hobeak el dira begietarako, argi gorriak ematen dutelarik.

Baina... (honek umeez beti bainaren bat!) erraza da horrelakoak jartzen, herriari eritxia eskatu gabe, eta herriarrok ordaindu behar dugunean.

Aspaldidanik, hainbat erreziho etortzen zaigu, ura dela, kaleko espaloiak direla, argiak direla, etab. Herriarrok kezkatzen hasiak gara eskarien ugaritasunaz eta diru multzo horren nondik norakoen eza.

Gauza guzti honen konpontzeko izan liteke garrantziko, eta beste gauza batzuetarako ere bai, datorren urteko kontzejal aukeratzea. Herriak aukeratuakoa herriak ken lezake eta. Txarrenean ere beti eska lezaiolke egiten duenaren berri.

Trenik ez dezagun gal, lanari lotu beharko gaurtik.

UR ARAZOAK

Hemen, lehorterik haundienean ere ez dugu izan ur ezarik, baina "Esteban Bilbao" hauzotegian urrik gabe aurkitzen dira.

Biztanleek hainbat protesta jo dute baina dana alferrik; ez zaie urrik heltzen goiko pisuetan bizi direnei.

Antza, herriko ur instalazioak du horren errua, tuboak ez bait dira behar beste zabal, behar den beste ur eramateko eta.

KATAZURI

soraluze

Gezurra badirudi ere lehen-goan sartu nintzen lehenengo aldiz Herriko Etxean. Batzarrean aipatutako 20 puntuk ezin ditzalet aipa.

Besteak beste, Sagar Erreka-ko zikinak erretzeko dagoen laborearen egoera eztaibaldatu zen. Elbar, Elgoibar, Soraluze eta Elgeta, laurak elkarturik, ari dira labe hori moldatu nahirik. Birtartean guk botatuko den usaia hartuz iraun beharko dute.

Herriko karrikak edo kaleak ere konpondu behar omen dituzte. Oso ondo. Bide batez, ea «gurdibidearen» egoeraz jabetzen di-

ren! Soraluzeko kamioak «gurdibidea» bait dirudi.

Industri poligonoa ere aztertuko.

Batzarrea erdaraz izan zen, nahiz eta ehunetik ia ehunak eusdunak izan. Honetan ere katalanak aurretik! Noiz hasi behar

ote dugu Udaletxeko batzarreak euskaraz egiten!

Hilaren lehenbiziko ostiralek, arratsaldeko 8etan, izaten da batzarre hau. Entzule gisa joan behar da. Halere merezi du joateak.

ASALIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira gahardu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear da baserriar burutsuak, berebiziko aragi pillak, gahiera esne putzuak, Oieki guziak berekin dituz Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI



eguberi-zozketa

ETXE BIZITZA

AUXE DA EGOKIERA EDERRA!

DONOSTI-AURREZKI-KUTXA'k, bere bezeruen artean eta zozketa bidez, MILLOI BANAKO BOST ETXE-BIZITZA banatuko ditu.

Aurreratu dirua, saritu dezakezu zeure burua, ta...

URTE BERRI, ETXE BERRI!



Donosti-Aurrerki Kutxa

beasain

GALDEKIZUNA

Amara Birjinaeren Jasokunde deribatzen parrokia, galdekizun zabal bat banatu du bere eliztarren artean. Denentzat ez dakit helduko den 2.000 ale banatu dituenek, baina sendi bakoitzera bakarren bat ezin heldurik ere, ez dela uste dut. Herriko ekindegietan jarri dira galdekizun orriak, nahi duenak eska dezan. Bestalde, parrokian bertan nahiz San Martinen parrokian ere eska litezke.

Galdekizun orria, azaroaren 23rako itzuli behar da nahiz eta 30era arteko epean ere jasoko den. Euskeraz eta espaheraz dator, nahiz eta azaletarako jarri den orri marrazkiduna espaheraz bakarrik dagoen...

Antza denez, berritze eta antolaketan on baten premia sumatu bide da eta horretarako eliztar multzo handi baten iritzia bildu nahi dira. Ondoren, erantzunak sailkatu eta berorien berri zehatza emateko asmoak omen dira. Berri ematean, Batzarre bat egin eta parrokia osoko iritzien arabera, zerbaite eraginkorra antolatu nahi da nonbait.

Honi buruz, zer esan? Beharbada, orain baino lehen egin beharko zen horrelako zerbaite, baina, orain hobe inoiz baino, esan ohi denez, egitea iritea bera ere zerbaite da. Galdekizunak, oso zabal harrapatzen dute Eliza antolamendua eta berdin Kristau bizitza. Bada hor iritzia emateko lekuri! Honetara ohiuak ez gaudenez, litekeena da eskaintzen zaigun aukera hau, behar bezala erabiltzen ez jakitea edo ta atera behar litzaizkeen probetxurik ez ateratzeko.

Hala ere ordea, galdekizuna hor dago eta asmatuko ahal dugu lehenik hitzez eta ondoren ekin-tzez, kristau bizitza bati dago-kiona azaltzen eta egiten.

Bada jenderik, parrokia honi buruz zenbait esames eta maxia-keta entzun dioguniki! Hein ba-tetan, arrazoiak ere bai noski, baina, hona garaia heldu. Orain da iritzia zabalki argetzeko garaia eta berehalak ekitzen jar-tzekoa ere hurbil daitake honez-gero. Ez dezagun aukerarik gal.

Askok baino zeresan guttiago dutenak, sailatuko dira heuren joerak agertzen eta aurrera erama-tzen. Euskaldunok, ez gaitzen izan gutxiago! Gure abasok, guk baino gehiago esku hartu zuten honelako erabakietan. Be-harbada, orduko haien eginahalei esker, gaude oraindik hemen. Garaia dugu bada, geure eraba-kiez baliatzen hasteko eta aurpegi eman behar denean emateko. Patxada handiago baten-gatik ez biezagu zenbaiteke bere iritzia eta nahia zera sinisme-aren izenean. Sinestun bagara, jar ditagun geure kabuz, sinestun iturteko behar ditugun bi-deak...

Bestek ez du guri dago-kigun prestatuko, berari dago-kiona baino. Erne bada, sineme-na gaitzen ari dela, esateak ez gaitu salbatuko eta. Gure saia-tu behar dugu, gaur eta hemen indar dadin. Bestela ezer ez gara.

ARRAINDEGIA

Azkenik, garbi ikusi dugu Zu-bimuzu enparantza asmoen berri. Lehen bota eta neurri berdintsutako (laburtzeago agian) arraindegi bat egiten ari dira lurra atera eta behekat zula-tuaz. Gaina dotore eta egoki geldituko da noski eta inguruko etxei (aurrekoan nioenez) argi-tasun ederrik emanen die.

Arraindegiari berari dagokio-nez, itoa izatetik at, behe sama-rean gelditzen da kokatua eta ez dakit... Oriako urak igotzen badira... kainuetatik urez bete-koetz ote den, nola ez da, horren aurrakio zerbaite jartzen ez du-ten.

Horko lanak direla ta, Lazkao-tik nahiz «kamino berri» he-rrirart sartu nahiz irtezeko bi-dea, moztua egon da eta Gipuz-koako enparantzatik zehar ibili dira berebrik. Uraren hediek ere, etenen bat edo beste jasan

dute tartean eta hauzoren bat urrik gabe egona da tarteko. He-rriko urak nondik-nora doazen, ez ote dago planorik?

GAISOTEGIA

Zurrumurruek diotenez, Zuma-ragan egitekoa zen «Residencia» delakoa ez ote den eginen. Ber-din, Beasainen egitekoa zen «Am-bulatorio de especialidades» de-lakoa ere. Ez dakit egia gerta-tuko den ala ez eta itxoegin bi-harko da, baina bero-bera ibili ondoren, hori horrela gertatzen bada, ondo jalaok gaude «Segu-ridad Social» delakoari esker bi-zia lutzatu nahi badugu.

Donostian ezin kabitu halako etxetzarri puskari erantsi eta puska erantsi. Bestalde, Antigu-o aldean edo... beste zerbaite be-renaganatu ote duten... Hospital Provincial deritzanak ere, pro-bintziatik ez du askorik han da-goenez, edo hobeki esanez, Di-putazioak jasotako probintziako dirua du, baina probintzianoen-tzat urrunegi dago, gehiegi ba-lia daitezen.

Hauk horrela, Beasaingo San Migel klinika eta kontsultoria ongi joan behar noski, goiherri-tarrok sakelari dirurik dugu ar-tean. Baina garbi gero bedi, az-kenekoak garbi joatea nahi du-dalako ez dela. Hauetaz esker da-go zerbaite Goiherriin eta heurari esker salbatu da hainbat bizi, baina, Seguridad Social-ak Goi-herriin biltzen dituen milioeta-tik, zerbaite bedierik Goiherriin uz-tea ere, nahi nukeela aldi be-rean. Bestela izan ere, sailtarako ari gara!

MURUMENDI

bergara

Aspaldidanik gure lerro auket ez dira argitaratu aldirik orant; onen-arrazoi izango litzateke, eri onta-ko berriak eguneroko aldirikarik aparteko xehetasunez argitaratzen di-tuztela eta gure oso mozt galditzen garaia gure lantxo auket ematen; orain dela zenbait denbora «Amati-ñok» bere trebetasunez zerbaite esan-tzen zuten gai on buruz; «—gaik au-rreraz eman ezin, baina ematen zire-nean, zaharrak—».

Behin baino gehiagotan zenbaitek esan digu, atzeratutik bizi gara eta ez dugu uste au gezurra denik, iflor ez dago gure atzeratutako zoro-keriarik irakurtzeko, au, onrela dela, beste baten gehiago, goazen betiko lelari jarraituz.

ESKERRAK

Aurtengo udazken luze ontan, uda-letxearen mendeko langileek atera dituzte bere tresnak. Premia ederrean zegoen illeri edo kanposantuko bi-de txukundu dute eta baita aren inguruak sasi eta trastez beterik ar-kitzen zirenak garbitu ere; lehengo burnibideko aberisako tunelean, iro argi jarri dituzte. Esango dute, au gauza uita dela, baiñan eguneroko an-dik igarotzen direnentzat badu bere garrantzia, batez ere, Burdinaloko langile eta Institutoko alibeste ikas-lerentzat; bidea berdindu eta urak baxteratze ez litzateke gaizki etorriko; laster izan dadila.

Entzutea dugunez eta eguneroko aldirikari batek jarri duenez, Pol-Po-leko urak beste hiebatan zear erri-ra ekartzeko asmoa izan bear da; itxura dagoenez, leengo urbida zahar-rak, behin betiko uztera doaz eta berri bat egin. Edozeinek daki, ur premia, ur beharra lurbiara guziko gaia dela, eta, Bergarak bere ur de-nen premia izango du, ezin egin li-tzekena da, erria ur barik uztea ura izanik; egia da, adibidez, beste erri batuzen egoera larria ikusita gurea ez dela ain txarra, baiña ur oiek alan gaitzen uztea mingarria da. Deba goi baillarako erri auzentat, Urkulun daude itxaropenak, baiña presa orri Arrasaten dago; egia esateko, Arrasate baino gorag, presa egin, ur bi-deak lutzatu eta onek daramazkan lan danak egin orduko Bergara ingur-razten dituzten mendietan kukuak kantatuko du ez dakit zenbat urte-tan, baliatze beste... zenbait urte; eta bitartean zer?

Joan den udan, zifegotzi edo kon-tzejal batek esaten zigan, ori gauza

egia dela; onen asmoa eta itxarope-nak txalagarriak dira, baiñan egia, geuk ez dugu alako ziurtasunik eta esango dugu zergatik, Madrillek, ain-beste milioi askatuko ote du? Ikus-teko, bizi gaitzen.

Ez dakigu zenbat milioe beharko diren Mateseratik San Antoniora bide dutsu orri irizitzeko. Ez daki-gu zenbat diru behar den Ortuibar zear dauden telegrafoko zutikoak baz-tertzeko, ez dakigu zenbat milioe beharko diren Bergarako errian pre-mia guziaz betetzeko, baiñan gai oiek, or daude bizi, bizi; noiz arte? San Pedrok atzaparra jaxti arte. Arraigalaz garek. Orretxegatik ez dugu ziurtasunik.

IKUSTALDIA

Mexiko aldea lurraldeetatik errian izan dugu Arana eta Txintxurela'tar liñaki bere senideei ikustaldi bat egi-ten. Ongi etorri eta ondo joan, opa diegu.

GAUEKO EUSKAL IKASTAROK

EUSKALTZAINDIAREN babe-sean eta Irigoien patronatuak eratu-rik, urteroko bezela asiera eman di-o gu saio auzi.

Zorionez, esan behar dugu, jende-ak ondo erantzun duela; beste ur-tetan baino ikasle gehiago urreratu da.

MENDIKOI

ermua

Zelan ba Ermua aldean? Zertan dira joan den ikastaroko asmo bikai-nak? Ikastolaren aldeko kampaña? Euskal alabeteak? Euskal giroa Er-muan?, etab. etab... Beti edo gehie-n-tan zertatzen den bezala, batzuk aurrera doaz, gutxi batzuk gelditu egin dira «pentsatzen edo» eta bat edo beste kale irizteki begira, dena kritikagailu ikusien duelarik.

IKASTOLAKO GORABEHERAK

Hasia da ikastolan urtearora. Joan den urtean egindako mesedeagari izan dela dirudi; ume gehiago agertu dira; batez ere behe mailetan. Ti-kienean 15 ume gehiago dira aurtin; 5gn mailan ere 8 gehiago. Joan den urtean 5 gna egin zutenak Elbarko ikastolan ari dira; eta dirudenez oso pozik gainera, bai gurasoak, irakas-leak eta baita umeak ere. Benetan eskeritzen dugu Elbarko ikastolakoan ahalagina. Datorren urtean ere izan-go dira Elbarko urak nahi dutenak eta horrelaxe jarraitzeko eskatzen diegu elbarkarrei. Badakigu beste bat-zuk ikastetxe ospetsuetara joanak direla; hau dela ta ipuin asko zabal-du izan da Ermua aldean; aurtin haize soinu onak datur; umeak ondo gertatuta joan ote diren alegia. Ho-rela aditzera eman zuten urtero be-zala gurasoekin egin zen batzar na-gusian; eta hau gurasoek heurak esa-tea benetan interesgarria da; itxura, irakasleak ere lanean zintzo ari dira.

Dirua dela ta, zozketa bat antola-tu dute konomi taldeok; oso ha-rrera ome akan du herrian. Gabonak aldera jai-aldi bat antolatuko dute; lan herrietako orfoeik artuko da.

Kultura taldeok ere gogor dihar-de lanean. Urte aro guztirako ikas-talazaldiak eta hitzaldiak antolatu di-tuzte. Helburua? EUSKAL HERRIA EZAGUTzea. Hasteko, 5ngoak joa-nak dira Bilbon eman duten «Trans-met» erakusketara. Bizkal aldea, Gi-puzkoa, Nafarroa, Ifar Euskal He-rria... ezagutzekotan dira. Hontaz gehiago urregio batean.

HITZALDIAK

Ikas ibiltaldien antzera, hitzaldi mordo bat eratu dago ikastolan; Gabonetan Oletzera jator bat —ia prestatzen hasiak dira— egiterakoan S. Martin ekarriko dute beronen kul-tura eta historia ezagutzera. Haste honetan bertan Xabi Mendiguren be-men izango dugu EUSKARA GAUR azaltzera etorria. Gerago: Altuna, Lizundia, etab., etab...

Benetan eskerrak eman beharrean gaude, hain zintzo eta jator ari den guraso bati: Aranberriat Agustiñi.

Gai hauek duten interesak jendea bilduko duelaokan gaude. AURRE-RA!

GAU ESKOLAK. EUSKAL ALFABETATZEA

Joan den ikasaldian hasi ginen ger-tatzen, orain hasera eman diogu ika-saldirako. Eta gure usteak eta aha-le-ginak lur onean jausi dira.

Zazpi irakasle ari gara jo eta ke, eta oraindik beste baten beharrean gaude.

Lehen mailan hogeita hamabi ari dira Yosune eta Yoli andereño ja-to-rekin.

Bigarren mailan hogeita bi Yoseba eta Begoñarekin.

Hirugarren mailan bederati; da-nok euskaraz hitz egiten dutenak, Jo-xe irakaslearekin.

Tikiagoez talde bat ere bada; ha-mar edo hamabi urtekoena M. Je-sus andereñoak zuzendua.

Eta alfabetatze mailan —lehen mailan— hamar lagun jo eta su ga-RA ALFABETATZEN hartuta.

Hauetatik zazpi irakasten ari gare-nak; besteak datorren urterako gerta-zen ari direnak. Hemendik aurrera irakasle on bat izango dugulakoan gaude. Urrengo batean azalduko du-gu gure lanaren metodoa. Oraingoz danok berotuta gabilzala eta aurre-ra egitekotan, Hurrengoan gehiago.

IKAS

oiartzun

ILUN ETA ZALANTZ

Bai, oraintxe herrian bizi dugun egoera, iluntasun eta zalantzez be-teta dagoelakoan nago. Denbora as-ko ez dela, hiru kontzejal kanpora-tuak izan dira (erabat botiak izan ez da dira ere); tartean Espainiako gorabeherak ditugu eta bukatzeko: alabetea hil dute.

Egunerak, irrati eta telebista-eman dute honen berri. Azaroaren 24ean bazen zer hitzeginkil etxe ta tabernetan; izan ere horrelako kolpe baki nahitaez, mintzazera bultza-zen gau. Ondoren, jende asko izan da etxeetatik horma tartiera erama-na. Laster utziko ahal dituzte!

Antonio Echeverria, 1974ko Abuz-tuaren 30ean sartu zen; beraz ez du denbora gehiegirik izan bere asmo-ak aurrera atera zitzen. Halaz ere, hizbide ugari jarritako gizona dugu. Bere asmo ta ekintzak bide zirela, denok gutxi edo gehiago mintzatzen bati ginen. Jakina, beti erraxena goian dagoen norbaiten hutsegite ta ankasartzeak ikustea da; nahiz eta guk haundiaok egin gure mai-la bategan.

Horrela, hil ondorenean nere dene-tariko irizitaki entzuten ditugu eta batzuk, azterketa batetara arama-ten duten hoietakoak dira. Izan ere,

gogorkeriak bultzatzeko heriotza ba-ten aurrean gaude eta «hil dutene-an zerbaitegatik izango zen» esa-naz, lasai gelditzen gara.

Zuzentasunaren izenean, batzuk jarritako legearekin, ez dut uste inor garbitzerik dagoenik; eta hau zori-tzarrez, gure artean gertatu da be-hin baino gehiagotan. Era ber-aan ordea, alderantziz jokatzen denean ere, ez dirudi pertsona bati bizi kentzeko eskubidea inork duenik eta hau ere gure artean bizi dugu.

Gogorkeriako bidea aukeratu ala beste bat, sakonki pentsatutako on-dorioa izan behar du, gero erantz-na behar bezalakoa izan dadin. As-koetan ordea, benetako planteamen-du batzuen ordez, sentimentuzko joerak eraginda, zer nahi gauzatz-e mintzatzen gara eta heriotza bat edo zapalketa bat, besterik gabe ontzat ematen dugu. Hau, oker haun-di bat delakoan nago eta nortasun gehiegirik ez den seinala.

Albistearekin jarraituz eta buka-tzeko, biziitu dugun azken kasu hon-tan, gauza garbi jakiten oso zaila da. Denok entzuten duguna hau da: «hil dute» eta gero beste batzuk «goian bego».

Beraz, gaurregun alkaterik gabe gaude eta orain ikusi beharko du-guna nor sartzen den (duten) da. Bestalde, hiru kontzejal asuntu-boa hor dago eta badirudi, berrio barruan sartuko direla. Dena den, denborak jakinaraziko digu udale-txea nortzuk osatzen duten eta ga-rrantz gehiago duena: zer egiten duten herriari begira eta ez beren interes batzuri. Badago zereginkil Oiarzun batetan. Ez gaitzen atzean gelditu.

ABENDUA

Urtearen azken hilabetean sartu gara eta Abenduak duen giro bere-zi hori bizitzera goaz. Oletzera, Eguberri, Urtezharrak hemen dit-u-gu eta horiei loturik dauden ohi-turak ere bai.

Ohi-turak direla eta, aurtin ere ikusiko ditugu noski taldeak etxez etxe kantari alaitasun rikia bat za-baldu nahiaz; askotan alaitasun hau itxurazko besterik ez izan arren.

Ez ditagun ordea, alaitasun eta poz horrekin, dauden arazok estali, baizik eta egun hauetan denok el-karrekin eraxago egiten garenez, holer irtenbideak artotzen salatu.

Elkarri pakea eta zorioren ematea ez daitzela axalekoak gerta!



Transportes

azkar s. a.

ERAMAN-EKARRIAK, KAMIOI AUNDIAK

Barcelona Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostitik egunero: Iruña, Bilbo, Gasteiz, Alcantar, Elche, Elda, Murcia, Car-tagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca.

Astean Irutan:

Malaga, Sevilla, Jerez de la Frontera, Cadiz, Lugo, Coru-ña, Orense eta Viguera joan etorriak.

Hernanirako bide nagusian, ERGOBIA auzoan, DONOSTIAN.

Urrutizikiak: 552650-552654

Apartado 1381



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLATEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

GIPUZKOAKO PELOTA ELKARTEA

URREZKO EZTAIETAN

1925garrean sortu zen Gipuzkoako Pelota Elkartea. 50 urte aurtin bete ditu, beraz. Eta 50 urte behin bakarrik betetzen dira bizitzan, beste hark zioen bezala. Behin betetzen zirenez gero jai egin zuen egun hura.

Gipuzkoako Pelota Elkarrekin Donostiako Idiakez kalean zuen orain arte bere etxea, Anoetako pelotalekuaren atzekaldean jarri ditu orain bere gelak. Leku txukun eta egokia benetan. Behar zuen honelako bat.

Karlos Gortazar, lehendakariarekin eta Ebaristo Aiestaran, lehendakari-ordekoarekin hitzegiteko zoria izan dugu.

—Gipuzkoako Pelota Elkartea-ren sorrera urrutia da, aspaldi gertatu zen. Halere zer dela eta sortu zen jakin nahi genuke.

—Gipuzkoako «Federación Atlética»-ren adar bat besterik ez zen pelota. Baina pelotak bere erakunde bat, bere elkarte bat, behar zuen. Norkasun osoz jokatu zuen zerbait behar zuen. Horregatik sortu zen Gipuzkoako Pelota Elkartea.

—Elkartea ez da araudi bat, ez da etxe bat. Zerbait bizi da. Nola eratzen eta berritzen da?

—«Club» guztien batzarre nagusiak du aginte osoa. Ezer apartekorik ez den bitartean urtean behin bakarrik bildu ohi dira. Denen artean aukeratu ohi da Lehendakaria. 9 ballaratan zati-turik dugu Gipuzkoa: Iruñea, Donostia, Ibañeta, Tolosa, Goierri, Bergara, Elbar eta Legazpi.

Ballara bakoitzeko «club» guztiek elkartzurik Elkartera bidali nahi duten ordezkaria aukeratzeko dute. Lehendakariak beste hainbeste laguntzaile hautatzeko eskubidea badu.

90 «club» dira Elkartea honen barruan direnak. Lan handia egiten ari dira.

—Mintza gaitzen pelotalekuez.

—Ehunetik gora dira Gipuzkoan diren frontoiak. Baina hiru alderdi nabarmendu nahi genituzke frontoi kontu honetan:

1) Urumea desegin zenean, Gipuzkoa, frontoi luzerik gabe geratu zen. Bera de Bidasoakoaz eta Oronokoaz ballatu behar izaten genuen txapelketetan. Gaurregun sei frontoi luze badi-tugu: URANZU Iruñea; bi KAR-MELO BALDA, barrukoia eta kanpokoia; GALARETA Herna-nin; IZARRAITZ Azpeitia; KI-ROLETXEA Aretxabaletan.

2) Aurtin amaitu diren frontoi motzak: ANOETA Anoetako herria; ANORGATXIKI Donostia; ORMAIZTEGI; HERNANI Florida hauzoan; ORBEA Eibarren.

3) Laster egitekotan garenak: Errenterian eta Andoaingo frontoi luzeak; Oñartzun, Villabona, Idiazabal, Hernani, Anzuola, Deba eta Elgoibarren frontoi motzak. Trinkete herria Donostian. Oriokoa eta Hondarrabiakoa es-tali eta berritu.

—Halere pelotaren etorkizunak nahiko kezka eman ohi du.

—Haundia izan da beste kirola batzuen arrakasta. Beste kirol-tak txapelketek eta lehiakete-keras izan diote pelotari ga-ral batean. Gaurregun, ordea, ez hainbeste. Antolatzen diren txapelketa guztietan pelotari askok hartzen du parte. Lehengo hil aldi hartatik atera garela uste dugu. Gu, behintzat, horretan ga-ra. Baitor gara, gaurregun.

Bestalde, jende asko joan ohi da pelotariak jokatzeko ikustera. Edozein jai egunetan jokatzeko diren partiduetara jende asko biltzen da. Jendez beterik dira pelotaleku gehienak.

Eta azkenik, edozein pelotari gazteren etorkizuna profesio etorkizunean sendotzen da. Lehen aldean etorkizun ona du pelotari profesionalak. Pelotarien profesioa hobetzen asko saiatu da Pelota Elkartea. Enpresek ere gogoan izan dute alderdi hau. Dena den, asko aurreratu da honetan.

—Ume eta gaztetxoetan pelotalekuek gehituzko ezer egi-ten ahal du Federazioak?

—9 urte behar ditu txapelketa batean parte hartu nahi duen mutikoak. Adin horretako muti-koek badute lehiaketetan parte



Gortazar eta Aiestaran

hartzeko aukerarik. 9 urtekoetatik 16 urte bitartekoan artean 5.000 pelotarik hartu dute parte Gipuzkoan egin den azken lehiaketan. Bada zerbait, noski.

—Zerbait berezia eginaz ospatu nahi izan dituzte Elkartearen urrezko eztaiak. Zer egin duzue urtean zehar?

—Arantzazuko Amabir jaiari eskaini nahi izan genion urrezko eztaien ospakizun hau. Txapela bat eta ikur bat eskaini geniz-kion Ekainaren 14an.

Noizbait, frontoi motzean, titulu-uren bat atera zuten Gipuzkoako pelotari afizionatuek omenal-di bat egin zitzaion ekainaren 14-15etan.

Frontoi luzean atera zutenei, berriz, Aretxabaletan uztailaren 26an.

Abuztuaren 3an, golzeko 11etan Villabonako errebotekoel; arra-taldeko Setan, Zubietako Yoko-Garbiri.

Abuztuaren 6an, palako profesio-nalei BALDAN.

Abuztuaren 12an, Esku-pelota-ri eta eskuzko pelotari txapeldu-nei ANOETAN.

Abuztuaren 23an, erremonteari eta erremonteko txapeldunei omenaldia.

Abuztuaren 25ean, 50 urte hau-etan Elkartearen barruan kargu-ren bat izan duten guztiak afa-ria GAZTELUBIDEN.

Irailaren 20an, trinketeen titulu-uren bat atera izan duten pelotariel omenaldia.

Azaroaren 7an, zestuko pelota-riel omenaldia IZARRAITZEN.

Abenduaren 14an, urrezko ez-taien ospakizunen bukaera.

—Besteak beste, Bertso-pape-rak sariaz eta bertsolari saioaz ospatu nahi izan dituzue urrez-ko eztaiak.


—Egiazko euskaldunak ba rruan ditu pelota eta euskara. Bestalde, bertsolari izan da zen-bait pelotari eta alderantziz. Bi-dezko zen, beraz, pelota eta ber-tsoa elkarri lotzea eta elkarrekin ospatzea. Herria ere pelotazale bezain bertsozale bait da.

—oOo—

Gipuzkoako Pelota Elkartearen urrezko ezta ospaketa hau pelotaren eta euskararen onerako izan bedi. Pelota indartzeko eta pelota inguruko mundua euskal-duntzeko izan bedi.

Oharrak, sarrera-txartelak, ko-rredoreekiko harremanak, pelotarien arteko hizketaldiak, jen-dearen arteko ihardunak, txape-la eta sarietan ipini ohi diren hitzak eta abar euskaraz izan bitez.

ERRIALDE



Abenduaren 14ean Jaialdia

10etan, MEZA Donostiako Trinketeen hildako pelotari eta pelotazaleentzat.

11etan, Karmelo Balda zenaren irudia agertzea, berorren ize-neko pelotalekuan.

11,30etan, bertsolarien jaialdia BALDAN:

Bertsolari saioa: Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Lazkano, Mattin, Xalbador eta Gorrotxategi.

Bertsorik onenarentzat sari berezia.

Bertso-paperak sarien banatzea: Xalbadorri, Matxai-ni eta Aierberi.

Euskaltzaindiari orogarria. Parte hartu dutenei es-kuerakutsiak.

2,30etan. BAZKARIA.

